

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EUSKARAREN ERABILERA KONFIANTZAREN PEDAGOGIAREN IKUSPUNTUTIK

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Flores Mendia, Irati
ZUZENDARIA: Aristizabal Llorente, M^a Pilar

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA
VITORIA-GASTEIZ, **2019**

LABURPENA

Euskararen erabilpenaren urritasuna Euskal Herriko txoko guztiak kezkatzen dituen gaia da, egin diren azterketek eta kale neurketek esaten dutenaren arabera. Hizkuntza gutxituak sustatzeko eremurik egokiena hezkuntza da, eta kasu honetan ikastolak. Bertan euskararekiko eta euskal kulturarekiko nortasuna garatzen laguntzen dutelako. Aldi berean, Ikastola pedagogia berritzaileen alde egiten duen eramua izanik, Konfiantzaren Pedagogia dugu ikastola eta ikastetxe desberdinen interesgune bihurtu den ildo pedagogiko berria.

Hori dela eta, gai hauek uztartuz lan honen helburu nagusia da pedagogia horrek jarraitzen dituen korranteetan oinarrituz euskara sustatzeko proposamenak sortzea. Horretarako, Altsasuko Iñigo Aritza Ikastola hartu da testuinguru bezala. Bertan marko pedagogiko berriarekin duela urte batzuk hasi ziren lanean eta irakasleek euskararen erabilpenarekin agertu duten kezka dela eta, proiektu hau aurrera eramateko ingurune aproposa bezala hartu da.

Esan dudana kontuan hartuz, gure proposamena egokia izan daiteke eta ez soilik Sakanako eremuan, baizik eta euskal herri mailan aplikatzeko baliagarria izan daiteke. Euskararen egoera kaskarra ez delako soilik inguru hauetan gertatzen baizik eta eremu zabalagoak hartzen ditu ere.

RESUMEN

El escaso uso del euskara como lengua de comunicación es un tema que inquieta a padres, madres y profesorado en gran parte de Euskal Herria. Se podría decir que la educación es un espacio al que podemos sacar partido para fomentar las lenguas minorizadas como el euskera. Al mismo tiempo podríamos decir que hasta ahora los centros educativos de esta zona se han ocupado de fomentar la identidad y la cultura vasca. Y además éstas mismas han dado el paso para ponerse a favor de nuevas pedagogías trabajando las competencias y los contenidos de un modo más innovador.

Aprovechando todo eso, el objetivo de este trabajo es partir de una pedagogía innovadora como La Pedagogía de la Confianza, para promover el euskara como lengua de comunicación entre el alumnado de Iñigo Aritza Ikastola. Ésta ikastola esta situada en Alsasua, y creemos que es un entorno adecuado ya que han apostado por las nuevas pedagogías.

Para terminar, podríamos decir que éste proyecto puede utilizarse en gran parte de los centros de Euskal Herria. Decimos esto, porque como antes hemos mencionado el problema del uso del euskara no solo es algo que afecte a Sakana sino que acoge un campo más amplio.

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA	3
2. MARKO TEORIKOA.....	5
2.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA	5
2.1.1. Definizioa.....	5
2.1.2. Konfiantzaren Pedagogiaren oinarri zientifikoak.....	6
2.1.3. Konfiantzaren pedagogia garatzeko baldintza pedagogikoak.....	9
2.2. AHOZKO HIZKUNTZA	12
2.2.1. Hizkuntzaren jabekuntza	13
2.2.2. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza murgilketaren bitartez Haur Hezkuntzan	13
2.2.3. Ahozko hizkuntza lantzeko estrategiak	14
3. HELBURUAK	19
4. METODOA	19
4.1. TESTUINGURUA	19
4.1.1. Iñigo Aritza Ikastola	19
4.2. PARTE HARTZAILEAK.....	22
4.3. ERABILITAKO TRESNAK.....	22
4.3.1. Behaketak	22
4.3.2. Elkarriketak.....	23
4.4. INFORMAZIOAREN ANALISIA.....	24
5. EMAITZAK	25
5.1 BEHAKETAREN EMAITZAK.....	25
5.2. ELKARRIZKETEN EMAITZAK.....	28
6. ONDORIOAK	34
7. PROPOSAMENA	36
7.1. IRAKASLEEK EUSKARA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK ERABILTZEA.....	36
7.2. DAUDEN ESPAZIOAK APROBETXATZEA.....	38
8. BIBLIOGRAFIA	40
9. ERANSKINAK	1

1. JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako Lan honen gaia sakona eta interesgarria dela iruditzen zait. 2015an sortu den eta pedagogia berritzailea den Konfiantzaren Pedagogiaren ildotik abiatuz, euskararen erabilera sustatzeko estrategiak proposatzeko nahiarekin egin dut.

Gaia aukeratzeko arrazoiak anitzak izan dira baina hasteko, nik bizi izandako esperientziatik abiatuko naiz.

Laugarren mailako praktikak Iñigo Aritza ikastolan egin nituen. Bertan egonda, 2018ko azaroaren 5tik, 2019ko urtarrilaren 25ra haurrak behatzeko aukera izan nuen. Nire behaketaren helburua hasiera batean eguneroko bat betetzea izan zen arren, konturatu nintzen geroz eta haur gehiago entzuten nituela gaztelaniaz hitz egiten eta begiratzen joaten nintzen heinean are eta gehiago gainera.

Nire ustez, egoera kezkarria zen eta irakasleei horri buruz galdetzea pentsatu nuen. Beraiek esan zidaten oso kezkatuta zeudela egoera horrekin eta gainera, marko pedagogiko berriaren barnean euskararen erabilera bultzatzeko estrategien beharra ikusten zutela.

Ikastolan Konfiantzaren Pedagogiarekin lan egiten dutenez, haurrak zirkulazio librea ibiltzen dira, bakoitzaren sena errespetatuz. Beraz, irakasleen arabera, batzuetan galduta sentitu izan dira haurrak gaztelaniaz entzutean.

Horrez gain, atentzioa deitu zidan beste gaztetako bat izan zen haur euskaldunek gaztelaniaz hitz egiteko egiten zuten saiakera. Hau da, haur askok ama-hizkuntza euskara izan arren, ikaskideen artean erderaz hitz egiten zuteneguz, erderaz egiteko ahalegin handiak egiten zituzten. Euskaraz hobeto moldatzen baziren ere, askotan, gaztelaniara jotzen zuten lagunen artean beraien lekua topatu ahal izateko, eta normalean gaztelania traketza erabiltzen zuten.

Iñigo Aritza Ikastola Altsasun kokatuta dago eta Altsasu, Sakanako herririk handiena dela esan dezakegu. Altsasuko euskararen egoera nahi izango genukeena baina okerragoa da eta, zer esanik ez, Sakana mailan begiratzen jartzen bagara.

Ni pertsonalki gure inguruko egoerak benetan kezkatzen nau, izan ere, euskaraz jakin badakigu baina ez da egunerokoan erabiltzen. Sakanako Mankomunitatean ikerketa batzuk egin izan dira egoera ezagutzeko eta bertatik hausnarketa egin ahal izateko ere.

Adibidez, 2011an egin zen azkeneko kale neurketa kontuan hartzen badugu, atera ziren ondorioetako batzuk izan ziren Sakanan euskararen erabilera, ezagutza baino bajuagoa dela, hau da, %36,8ak badaki baina erabili soilik %22,8k egiten du. Hala esaten da ikerketan bertan:

“Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak soilik haurren artean topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabili dezaketela.” (Soziolinguistika Klusterra, 2012 22.orr)

Horrek esan nahi du euskaraz dakitenek euskaraz ez dakiten pertsonekin gaztelaniaz hitz egingo dutela, beraz, gaztelania euskara baino gehiago erabiliko dutela elebidunek eta ondorioz, erabilera beti izango da ezagutza baino baxuagoa.

Gainera 2007an Sakanan egin zen beste ikerketa batek (Nafarroako Gobernua, 2007) esaten zuen bezala, ulertzen ez dutenenekin erdaraz hitz egiteaz gainera, beste arrazoi batzuk ere badaude euskara ez erabiltzeko. Esate baterako, euskaraz dakiten baina erabiltzen ez dutenen artean %47,5ak dio ez duela euskaraz hitz egiteko ohiturarik. %25ak ez dakielako ez duela erabiltzen esaten du eta %17,1ak aldiz, adierazten du gaztelaniaz erosoago moldatzen dela.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago, 2011an egin zuten kale neurketan 2001. urtetik, 2011. urtera euskarak bultzada txiki bat izan zuela, hots, %20,7tik, %22,7ra igo zen erabilera.

Euskarak urteekin bultzada txiki bat izan arren, ikastoletan ez da hori bermatzen. Haurren artean ez da euskara entzuten eta nire ustez altxor bat dugu euskara. Euskarak mende asko iraun duen hizkuntza da, bere jatorria oraindik ezagutzen ez duguna baina gaur egun arte iritsi dena. Eta hainbeste denbora iraun duen hizkuntza galtzea gure jatorria galtzea bezala izango litzateke. Igartua eta Zabaltzaren esanetan (2012, 50.orr.) *“Euskararen historiak ezkututzen duen egiazko misterioa ez da haren jatorria, gaurdaino iraun izana baizik”*

Euskara da euskaldun egiten gaituena, eta euskal nortasuna ematen diguna. Nire ustez euskara bizi behar dugu, zaintzea ez da nahikoa, maitatzen ikasi behar dugu eta horrekin batera sustatzen saiatu behar gara. Joxean Artzeren esaldi ezagunak dioen moduan *“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”*.

Dena dela, badaude euskararekin harreman ona ez duten zenbait pertsona. Horren arrazoia izan daiteke, txikitatik hizkuntzarekin eraiki duten harremana egokiena izan ez delako. Nire ustez, lan honekin horretan sakondu dezaket eta agian hurrei txikitatik euskararekin beste harreman bat sortzen lagundu diezaiek. Uste dut, euskararekiko harreman positiboagoa sortzen lagundu dezakedala.

Hori guztia kontuan hartuz, nire ustez hain preziatua dugun gure hizkuntza galdu ez dadin erroetatik aldatu behar ditugu gauzak eta haurrak euskararen murgildu behar ditugu. Hau egiteko, kontzientzia sortu eta ondoren tresna ezberdinak eta motibagarriak eskaini behar dizkiegu gure hurrei transmisioa egokia izan dadin.

Erronka guzti horiei erantzuteko, lan honen lehenengo atalean Marko Teorikoa agertzen da. Bertan, Konfiantzaren Pedagogiaren nondik norakoak azaltzen ditugu eta ondoren, ahozko hizkuntza, eta batez ere euskararen erabilera sustatzeko gaur egun erabiltzen diren estrategia ezberdinak aztertuko ditugu.

Bigarren atalean, lan honen Helburuak azaltzen ditugu eta jarraian, gure azterlana aurrera eramateko erabili dugun Metodoa dugu. Honen barruan, azterketa egin dugun testuingurua, parte hartzaileak, informazioa lortzeko erabili ditugun tresnak eta informazioaren analisia dugu. Geroago, jaso ditugun datuen emaitzak ezagutarazten ditugu eta bertatik ateratako ondorioak. Amaieran, euskara sustatzeko proposamen ezberdinak azalduko ditugu.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

2.1.1. Definizioa

Konfiantzaren Pedagogia definitzerako orduan, esan daiteke ez dagoela definizio zehatzik. Hala ere, Amaia Anterok Arizmendi ikastolako zuzendari pedagogikoak “*Konfiantzaren Pedagogia*” liburuan (2015), bi gako nagusi azpimarratzen ditu Konfiantzaren Pedagogia ulertzeko:

a) “Konfiantzaren Pedagogia pertsonak bere buruarengan, beste pertsonengan eta bere inguruarengan konfiantza izatean oinarritzen da”. (9.orr)

b) “Norberarengan konfiantza izatea arrakastaren gakoa da”. (10.orr)

Proiektu pedagogiko berri hau Arizmendi ikastolan sortu zen. Hori sortzearen arrazoia hezkuntza tradizionalarekin hausteko nahia izan zen, izan ere, pedagogia tradizionalak ez baitu pertsonaren garapena errespetatzen eta horrekin batera, ez ditu gaur egungo ikasleen beharrak eta etorkizunean izango dituzten beharrak errespetatzen.

Perez Gomezek (1992) esaten zuen bezala, duela hamarkada batzuk, pertsonak, basamortuan oasia balitz bezala ikusten zuten eskola. Hau da, pertsonak basamortu batean bizi ziren eta eskolan ahal zuten ur guztia edaten saiatzen ziren, basamortua zeharkatu ahal izateko. Gaur egun aldiz, hori asko aldatu da, ikasleak ez direlako ezagutzaz betetzen baizik eta dakitenarekin erantzun berriak sortzen laguntzen zaie (Antero 2015). Eta hau da Konfiantzaren Pedagogia egiten saiatzen dena. Ikasleak, edo hobeto esanda, pertsonak begiratzeko modu bat bezala ikusi daiteke, pertsona bakoitzak bere barnean drama garatzeko eta zoriontsu izateko behar duen guztia (Antero, 2015).

Landak (2016), konfiantzaren Pedagogiaren gakoa konfiantza dela esaten du eta horregatik pedagogia honek izen hori hartzen du. Hala eta guztiz ere, pedagogia honen muga ez dago besteenganako konfiantzan, norberaren buruan konfiantza izatea, besteenganako eta inguruarekiko konfiantza lortzea izango baitira horren helburuak. Horrekin, ikasleak bere gaitasunak garatuko ditu eta bere zailtasunak kudeatzen ikasiko du ikaskuntza prozesu baten barruan.

Gerver-ek (2015) ere horrekin bat egiten du, berak esaten du elkar errespetatuz eta elkarrekiko konfiantza landuz eraiki beharko dugula eskola, konfiantzazko eta segurtasunezko eremu batean jendeak ezin hobeto egiten baitu lan. Oso garrantzitsua da, beraz, konfiantzazko harreman horiek zaintzea. Ildo horretatik, Gerverrek (2015) berak Paco Cascon psikologoaren aipatzen ditu erekonfiantza irabazi egiten den zerbait dela, ez da inposatu behar. Gainera konfiantza sortzea berreskuratzea baino errazagoa da, beraz, konfiantza galtzen bada oso zaila da berriro berreskuratzea. Horregatik konfiantzazko harremanak zaindu behar dira.

2.1.2. Konfiantzaren Pedagogiaren oinarri zientifikoak

Konfiantzaren Pedagogia hainbat teoretatik hartutako oinarrietan errotzen da. Ikerketa eta zientzia ezberdin hauek, ikasleen autokonfiantza, hezitzaileekiko konfiantza, ikaskideekiko konfiantza eta inguruekiko konfiantza baimentzen dutenez pedagogia honekin bat egiten dute, modu honetan, irakats-ikasteko prozesua atsegina, egokia eta arrakastatsua izatea lortzen baita (Antero, 2015).

Psikologia Humanistarekin bat egiten duela esan daiteke eta horrekin batera, pertsonak modu zehatz batean begiratzen duten teoriekin ere. Esate baterako, pertsonak bakarrak direla eta pertsona bakoitzak bere burua ezagutzeko eta garatzeko gaitasuna dutela esaten duten teoriekin.

2.1.2.1. Etologia

Etologia animalien portaerak ikertzen dituen biologiaren atala da, hau da, espezie ezberdinek ingurunean dituzten jokaerak aztertzen ditu. Anterok (2015) esandakoaren arabera Konfiantzaren Pedagogian zientziaren atal hau, haurren portaerak, jarrerak eta emozioak ulertzeko kontuan hartzen da. Etologiaren arabera, gizakiak animaliak garen heinean, senak ditugu. Hauek, ikasi ez ditugun eta genomak barneratuta ditugun jarduteko moduak izango ziren, barneko eta kanpoko estimuluen ondorioz pizten direnak. Senak lau mailatan banatzen dira:

- Motorra: Iraupenerako ekintzak.
- Emozionala: Keinu eta hitzak.
- Neurobegetatiboa: Keinuak eta behaketa fisiologiko bidez antzematen direnak.
- Imaginarioa: Norberaren irudi eta errepresentazioak.

Senak behar beharrezkoak dira espezie baten biziraupenerako eta gizakiarengan hauek pizten direnean garrantzitsua da transmititzen ditugun seinaleak interpretatzeaz gain, erantzuna ematea, horrela lortzen baita garapen emozional eta kognitibo egokia (Antero, 2015).

Hau guztia kontuan hartuz, Konfiantzaren Pedagogian hezitzaileek paper garrantzitsua jokatzen dute. Hain zuzen ere, ikasleei testuinguru ezberdinak eskaintzeaz aparte, beharrei erantzuna eman eta senak behar bezala kudeatzen laguntzen diete. Gogoak kudeatzen laguntza emanez, espazioak eta material ezberdinak eskainiz, babesa emanez... Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, Konfiantzaren Pedagogiak ez dituela sena guztiak kontuan hartzen. Cristobalek (2011) dioenez, soilik kontuan hartzen dira haurren garapen indibidual eta sozialean garrantzitsuenak direnak: atxikitze sena, miatzeko sena, ihes egiteko sena, kidezteko sena, erasotzeko sena, hierarkiarako sena, zaintzeko sena eta sexurako sena.

2.1.2.2. Konduktismoa

Konduktismoaren teoriak esaten duen moduan, portaerak ikasi eta moldatu egiten dira errefortzuen bidez edo zigor edo errefortzu negatiboen bitartez. Hasieran aipatu den bezala, Konfiantzaren Pedagogiak zenbait gako hartzen ditu hainbat teoria eta zientzietatik. Kasu honetan, konduktismoaren zenbait ideiekin bat egiten du, beste batzuk baztertuz.

Konduktismoaren arabera, jakintza gehienak imitazioaren bitartez barneratzen dira. Hori kontuan hartuz, Konfiantzaren Pedagogian hezitzailearen paperak leku garrantzitsua hartzen du. Hurrek estimulu naturalen eta neutroen artean loturak egiten dituzte eta aldi berean, beraien bizipenetan eta portaeretan zuzeneko eragina izaten dute.

Honen ondorioz, hezitzaileek ematen dituzten estimuluak egokiak izan behar direla dio Konfiantzaren Pedagogiak. Asoziazio pauloviarrek, ahal den heinean, plazerrarekin lotutakoak izan behar direla alegia (Antero, 2015, 54-55. orr).

Baldintzapez klasikoaren ideia batzuetaz aparte, ikaskuntza sozialaren teoriatik hainbat puntu hartzen ditu ere. Ikaskuntza sozialaren teoriaren arabera, gizakiak beste gizaki batek egiten duena behatuz ikasten ditu hainbat portaera. Horregatik, Konfiantzaren Pedagogian kontuan hartzen da hurrek helduak behatuz edo bere berdinak behatuz ikasten dutela. Adibidez, haur batek portaera negatiboa badu eta irakasleak errefortzu negatibo bat egiten badiu, beste haur batek hori ikustean, hori ez duela egin behar ikasiko du.

Hori guztiagatik, esan daiteke pedagogia berri honetan konduktismotik kontuan hartzen dela bakoitzak bizi dituen esperientzietan oinarrituta ikasteaz gain, komunitatean behatzen duenarekin ere ikasiko duela.

2.1.2.3. Soziokonstruktibismoa

Korrante honen arabera, ezagutzak eraikitze prozesua testuinguru errealean, esanguratsuetan eta funtzionalean eman behar da. Esate baterako, ezagutzak egunerokoan eraikitzen dira, testuinguru desberdinetan ematen dira eta pertsonak lehendik zituen ezagutzetatik abiatuz. Hori dela eta, Konfiantzaren Pedagogian ikaslearen ikaste prozesua eta modua ulertzeko hartzen da kontuan teoria hau.

Piagetek (Tamayo, 2012) esandakoaren arabera, ezagutzaren eraikuntza emateko, eskema mentalen eraldaketa eman behar da, ezagutza berriak lehengoekin konparatuz eta barneratuz. Vigotskyk (Antero 2015), Piagetek esandakoari ideia berriak gehitu zizkion. Izan ere, Piagetek azaldutako eskema mentalen eraldaketa horretan eremu soziokulturalak garrantzi handia duela aipatu zuen.

Horretaz aparte, Ausubel, Novak eta Hanesianen (1978) ideiekin ere bat egiten du Konfiantzaren Pedagogiak. Horien arabera, ezagutzak esanguratsuak izan behar dira, horrela soilik lortzen delako ezagutza berriak testuinguru desberdinetan aplikatzea eta memorian gordetzea. Hori guztia dela eta, Konfiantzaren Pedagogioan garrantzi handia hartzen du ikaskuntza modu kooperatiboan eta sozialean izatea.

2.1.2.4. Psikologia kognitiboa

Psikologiaren atal hau XX. mendearen bukaeran sortu zen eta gizakiaren adimena aztertzen duen Zientzia Kognitiboaren atala da. Honen arabera, gizakiaren pentsamendua informazioa prozesatzeko gai da. Horrez gain, ezagutzaren azterketa egiteaz aparte, ezagutza martxan jartzen duten baliabideak ikertzen ditu, bestek beste: memoria, arrazonamendu logikoa... (Psikologia Hiztegia, 1997).

Konfiantzaren Pedagogian teoria honekin bat egiten duten autore ezeberdinen ekarpenak aintzat hartzen dira. "Kognizioaren gai honi dagokionez, Edward de Bono (CorT programa), Arthur Costa (Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza), José Antonio Marina (Adimenaren Teoria Exekutiboa), Robert Sternberg (Practical Intelligence For Schools), David Perkins (Harvardeko Zero Proiektua) eta beste hainbaten arrastoa ari gara jarraitzen" (Antero, 2015, 59.orr). Teoria horiek guztiak kontuan hartuz, Konfiantzaren Pedagogian, hezitzaileen lana eta ikasleek lortu beharrekoa izango litzateke: ikasleak eruen ikaskuntza diseinatzen, antolatzen eta eraikitzen laguntzea eta ikastea (Antero, 2015).

2.1.2.5. Neurozientziak

Garunean gertatzen diren fenomeno neurologikoak, kimikoak eta fisiologikoak aztertzen dituzten zientziek geroz eta garrantzi handiagoa hartu dute eta hainbat zientzialarik dioten bezala, hezkuntzan nabaritu da (Pérez eta Gimeno,1992). Konfiantzaren Pedagogiak, neurozeintzietatik, hiru ideia nagusi hartzen ditu bere barne (Antero, 2015, 59-63. orr):

a) Garunaren plastikotasuna: Garuna bizitza osoan zehar ikasteko programatua dagoen organoa da eta gizakion ekintzek garunaren egitura kognitiboa kondizionatzen dute. Horregatik haurrekin aurrera eramaten diren jarduerak beraien bizitzarako baliagarriak eta baliozkoak izan behar dira.

b) Inkontzientea: Garunaren aktibitatearen %90-95 inkontzientearen bidez izaten da, esate baterako, garunaren barnean gertatzen diren prozesuak automatizatzeko joera izaten du.

Errepikatzen diren, esanguratsuak diren eta baliagarriak diren jarduerak mekanizatzen dira: balioak, ohiturak, zirrarak eta sinesmenak. Hau kontuan hartuz, hezkuntzak jarduera inkontziente horiek kontziente bihurtzen lagundu beharko du.

c) Emozioak: Gizakiak lehendabizi emozioak sortzen ditu, ondoren emozio horiek sentimendu bihurtzen dira eta horietatik gogo-aldarteak sortzen dira. Hau da, sentimenduen ondorioz erantzun egiten dugu edo erantzuteko motibazio dira. Horregatik hezkuntzan zirrarei garrantzi handia ematen zaie, emozioak sortuz soilik izango delako ikaskuntza esanguratsua.

2.1.3. Konfiantzaren pedagogia garatzeko baldintza pedagogikoak

Anteroren (2016) arabera, Konfiantzaren Pedagogia egoki garatzeko eta ikastetxean egoki aplikatu ahal izateko ikastetxeetan hiru eremu bereizten dira eta horien barruan hamahiru indikatzaile:

- 1- Gizakiaren garapenerako eta zaintzarako baldintzak.
- 2- Testuinguruaren baldintzak
- 3- Ikas-irakaste prozesurako baldintzak.

2.1.3.1. Gizakiaren garapenerako eta zaintzarako baldintzak

Pertsonaren garapen egokirako norberaren buruan konfiantza izan behar dugu eta horrekin batera, besteengan ere konfiantza hori bermatu behar da. Zaintzak ere zerikusi handia dauka konfiantza izaterako orduan eta horregatik Anterok (2015) zenbait puntu zehazten ditu:

a) SENAK LANDU BEHAR DIRA: Ikasleak harmonikoak izateko eta tentsio egoerak edo deseroso sentitzen diren egoeretan erantzun egokia ematen jakiteko, materialen bidez, testuinguru ezberdinak baliatuz eta babesa emanaz senak landu egiten dira.

b) GAITASUNAK IDENTIFIKATU ETA GARATZEN LAGUNDU BEHAR ZAIE: Pertsonen berezko gaitasunak dituzte eta hauek identifikatu eta garatzen lagundu behar zaie ikasleei.

c) ZAILTASUNAK GARAIZ IDENTIFIKATU ETA EGOKI KUDEATZEN LAGUNDU BEHAR ZAIE: Estrategia ezberdinak baliatuz, pertsonaren garapena oztopatu dezaketen gertaerak identifikatu behar dira, egoki kudeatzen lagunduz.

d) SUFRIMENDUAREKIN ENPATIZATU BEHAR DA: Ikaslearen sufrimendua fisikoa, psikologikoa edo konpetentziala izan daiteke. Hauek direla eta, helduak haurrarekin enpatizatzen jakin beharko du. Buberrek (2002) esaten zuen bezala, pertsona bati egin dakioken oparirik politena enpatia da.

“Haur edo nerabe bat zoriontsu garatu ahal izateko, ezagutua sentitu behar da, maitatua sentitu behar da baldintzarik gabe, segurtasuna sentitu behar du, haur bat bezala tratatua

eta ez heldu txiki bat bezala, norberaren hezkuntzan parte hartzea eta bakoitza bera izatea” (Fernandez-Dominguez 2005, 233 orr.).

e) ZAINZAILLEAK ZAINZEA: Eskolan profesionalen arteko harremanak kalitatezkoak izan behar dira. Hau da, garapen pertsonala eta profesionala eman behar da, espazio atseginak eraikitzen lagundu behar da, gurasoei heziketa lanerako orientabideak eman behar zaizkie eta zailtasunetan laguntza eskaini behar zaie (Antero, 2015, 79.orr)

2.1.3.2. Testuinguruaren baldintzak

Atal honetan hurrek ingurunearekin konfiantza garatzeko behar diren baldintzak azalduko dira (Antero, 2015, 83-104 orr):

a) Komunitatearekin lotura egin behar da: herriarekin eta ikasleen gurasoekin harreman egokia eta inplikazioa bilatu behar da. Haurrak ikusten badu helduak irakaslearengan konfiantza duela, irakaslearekin konfiantza izango du ere. Hau gertatzeko familiak eskolako espazioetara hurbildu behar dira, hezitzaileekin komunikatu eta herriko espazio ezberdinekin harremana izan beharko dute.

b) Espazioa eta denbora kontuan hartzen dira: Espazioa eta denboraren arteko antolaketak Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspegitik berebiziko garrantzia du harurraren ongizatean. Anteroren arabera, (2015, 85.orr) “Stanford Unibertsitatean (Erresuma Batuan) 2012an egindako ikerketa baten arabera, espazioaren diseinua aintzat hartzen denean %25eko hobekuntza gertatzen da ikas prozesuan”. Hau dela eta, antolamendua asko zaintzen dute. .

c) Gelan giro atseginak sortu behar dira: Taldearen kohesioak garrantzi handia duenez, pertsona guztien arteko harremanak eta komunikazioak errespetuz eta begirunezkoak izan behar dira.

d) Talde eraginkorrak sortu behar dira: Ikasleen taldeak sortzerako orduan menderazio mota, lotura mota, adimen mota, profil linguistikoa, sexu eta genero aniztasuna eta adinen arteko komunikazioa hartu behar da kontuan.

2.1.3.3. Ikas-irakaste prozesurako baldintzak

Atal honetan, irakasteko eta ikasteko prozesuan kontuan hartu behar diren baldintzak azalduko dira. Anterok (2016) azaldu duen moduan, irakatsi eta ikasteko prozesua gozagarria, esanguratsua eta arrakastatsua izan dadin beharrezkoak dira:

a) Motibazioa mobilizatzea: norberaren berezko interesetatik abiatzea izango litzateke egokiena, ondoren hurrek lan horretan arreta jar dezaten eta benetan ikas dezaten. Anterok (2015) Francisco Mora adituaren lanetik jasotzen duen bezala, emozioa elementu garrantzitsua da bai ikasten duen ikaslearentzat eta bai irakasten duen irakaslearentzat. Hau da, lehenik irakasleak maitatu beharko du irakasten dagoen hori, ikasleak ere berdina sentitu ahal izateko.

b) Ikaskuntza aktiboa izatea: benetako eta sakoneko ikaskuntza emateko haurrak entzuten eta ikusten jarri beharrean, eztabaidatzen eta azalpenak ematen jarri gero gehiago ikasiko dute. Horren arabera, Konfiantzaren Pedagogian, irakaskuntzan indarra jarri ordez, ikaskuntzan jartzen da; Ikasteari irakasketari baino garrantzi handiagoa ematen zaio eta azkenik, metodologiaren erdian ikaslea egongo litzateke. Beraz, ikaslea aktiboa izan behar da lau aspektuetan (Antero, 2015):

- Aktiboa pentsamenduan Pentsamendu sortzailearen eta kritikoaren inguruko teorizazioan eta aplikazioan aditua den Swartzek azaltzen du, hezitzaileak hurrekin hainbat trebetasun landu behar dituela: arazoak konpontzen ikastea, arazoen aurrean irtenbideak topatzen ikastea eta kontzeptualizatzen ikastea (sakoneko ulermen maila) Antero (2015).

- Aktiboa komunikazioan: Komunikazioa aktiboa izateko Anterok (2015) hiru alderdi azaltzen ditu: Informazioaren komunikazioa (hezitzaileak hitz egiten eta entzuten jakin behar du eta horretarako aukerak eman behar ditu); Elkarrekintza arautzeko komunikazioa (Elkarren artean ulertzeko beharrezkoa da gelan giro orekatua atsegina eta egokia izatea, horretarako espazioak eta denborak sortu behar dira) eta azkenik konfiantza eta afektuzko komunikazioa (Ikastetxeko kideen arteko elkar ulertzea, onartzea eta ezagutzea).

- Aktiboa esperimendazioan eta manipulazioan: Esperimendazioa eta manipulazioa oso garrantzitsuak dira hurrek elementu abstraktuak ulertu ahal izateko. Ikasle batzuentzat esperimendazioa nahitaezko pausua da ikasketa prozesua emateko.

- Aktiboa elkarlanean: Konfiantzaren pedagogian ezinbestekoa da ikaste irakaste prozesua elkarlanean ematea. Izan ere, ikasleak, taldean lan egiten duenean, bakarka lortu dezakeena baino gehiago lortzera iritsi daiteke.

c) Ebaluazioa hezigarria izan behar da: Konfiantzaren Pedagogiaren arabera, irakaslearen irakasteko modua eta ikaslearen ikasteko modua ebaluatzen duen ebaluazioa erabili behar da. Ikasleak nora iritsi behar diren, non dauden eta zeintzuk diren jarraitu behar dituzten urratsak identifikatzen dituen, hain zuzen ere. Hau lortzeko, haurren gaitasunak kontuan hartzen dituzten helburuak jarri behar dira hasieran, hau da, hurrek lortu ditzaketenak, errealak eta aldi berean saiakerak eta huts egiteak ahalbidetzen dituztenak.

d) Adimen anitzak lantzea: Pedagogia hau Gardner-en Adimen Anitzen teorian oinarritzen da zenbait alderdietan. Gardnerren ustez, adimenak gutako bakoitzak dituen potentzial biologikoak dira. Talentudun bezala hartzen ditugun pertsonengan oso garbi ikusi daitezke adimenak. Besteetan aldiz, adimenek elkarlanean lan egiten dute, egoerei, erronkei eta zailtasunei aurre egiteko (Antero 2015). Gardnerrek zortzi adimen anitz azaltzen ditu: Linguistikoa, Logiko-matematikoa, Espaziala, Kinestesikoa, Musikala, Pertsona artekoa, Pertsona barrukoa eta Naturalista. Hauek ikasteari garrantzia handia ematen zaio, izan ere, bizi ahal izateko garrantzitsuak dira. Hori dela eta, hurrei gune ezberdinak eskaintzen zaizkie gelan bakoitzak dituen adimenak garatu ahal izateko.

2.1.4. Euskara lantzea Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspuntutik

Kontuan hartu behar da Konfiantzaren Pedagogiaren helburuetako bat euskaldun kompetente eta kooperatiboak garatzen laguntzea dela. Beraz, pedagogia honetan bere haurrak matrikulatzen dituzten familiak euskararekin konzientziatuak egon beharko liriateke. Baina zer gertatzen da pedagogia mota hori aurrera eramaten den ikastetxea ingurune erdaldun batean kokatuta badago? Konfiantzaren Pedagogia ingurune euskaldun batean sortu denez, badirudi euskaraz bizi, hazi eta hezi diren familientzat zuzenduta dagoela. Hori dela eta, ingurune erdaldunagoetara eramaten denean, bertan dauden ikastetxeak hanka motz gera daitezke euskara bera lantzeko modu egokiena topatzen. Izan ere, Amaia Anterok (2015) bere liburuan lider linguistikoaren ardura azaltzen du. Hau da, irakaslea euskaraz hitz egiten duten haurrak topatu eta talde lanetan lan egiten dutenean, lider linguistiko horiek haur erdaldunagoekin nahasten saiatu beharko litzateke. Baina aipatu beharra dago, lider linguistikoaren jarduera hori Lehen Hezkuntzara edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara zuzenduta dagoela gehien bat. Hau da, talde handi bakar bat izatetik, talde txikiagoak izatera pasatzen direnean.

2.2. AHOZKO HIZKUNTZA

Ahozko hizkuntza edo mintzatzeko gaitasuna gizakiak eta gainontzeko espezieak ezberdintzen dituen gaitasuna da. Pertsona guztiek hizkuntzaren bidez ideiak, gogorapenak, ezagutzak, desirak... komunikatu eta jasotzen dituzte. Gizakien arteko harremanak ahalbidetzen ditu eta komunikazio biderik nagusiena da hizkuntza.

Ahozko hizkuntza prozesu konplexua da eta sinbolo kodea ezagutzea, hiztegia eskuratzea, hori erabiltzen ikastea, hitzen esanahia eta esaldiak eratzeko modua ezagutzea, kontzeptuak erabiltzen jakitena... eskatzen du.

Horrez gain, baldintza batzuk eskatzen ditu: (Sanchez, E. Saez del Castillo, M. Arteaga, G. Palomar, A. Villar, M.1996, 2.orr)

- Nerbio sistemaren heldutasuna.
- Fonazio aparatuaren egokitasuna.
- Entzumen maila dezentea.
- Adimen maila gutxienekoa izatea.
- Garapen psikoafektiboa.
- Inguruaren ezagutza.
- Pertsonen arteko harremana.

2.2.1. Hizkuntzaren jabekuntza

Ahozko hizkuntza ikasten denean normalean familian izaten da, hau da, gurasoengandik ikasten dute umeez. Lehendabiziko irakaspen hori irribarrez eta keinuz egiten da. Haurrak hauek entzun eta imitatzen saiatuko dira. Beraz, haurraren motibazio iturri bezala jokatzeko du bai helduak eta bai inguruak garai horretan.

Esan daiteke, hizkuntza eta jolasa loturik joaten direla. Esate baterako, jolasaren bitartez hizkuntzaren garapena erraztu daiteke, izan ere, haurrek jolasten duten bitartean mintzaira erabiltzen baitute. Haurrak hasieratik hizkuntza probatzen du, soinuak egiten ditu, ezpaineekin probatuz, ahoarekin... Honen bitartez ahoko hizkuntza bereganatuko du.

Hala eta guztiz ere, oso garrantzitsua da haurrari hitz egiteko aukera ematea. Hemen ikastetxeak paper garrantzitsua jokatzeko du, lehengo atalean esan dugun bezala, batez ere familian aukerarik ematen ez zaionean edo familia eta eskolaren hizkuntza bat ez datozenean. Beraz, haurrari galderak eginez, bere iritzia buruz galdetuz, erantzunak emateko denbora eskainiz... aho hizkuntzaren garapenean lagunduko zaio.

Aukerak emateaz gain kontuan hartu behar den beste gauza bat, haurraren psikomotrizitatea da. Psikomotrizitateak hizkeraren garapenean garrantzi handia izango du. Eta psikomotrizitateaz gain, haurraren garapena orekatua izan dadin, ahoko hizkuntzarekin zuzenean lotura duten jarduerak sortu behar dira. Motibazioa ahaztu gabe, hau da, irakasleak bere esperientzia eta irudimena jokoan jarri beharko ditu haurraren motibazioa lortzeko (Sanchez, E.; Saez del Castillo, M.; Arteaga, G.; Palomar, A.; Villar, M., 1996).

2.2.2. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza murgilketaren bitartez Haur Hezkuntzan

Murgilketa, haurraren lehendabiziko hizkuntza ez den beste batean oinarritzen den hezkuntza mota da, hau da, bere lehendabiziko hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren ikasgaiak alde batera utzita, beste guztia bigarren hizkuntza batean ematen denean esaten da murgilketaren bidezko hezkuntza dela. Eta hau da euskara irakasteko ikastolek gaur egun erabiltzen duten programa.

Haur Hezkuntzan hizkuntzaren ikasketa komunikazioan eta elkarrizketan oinarritzen da, eta horregatik, esan daiteke, murgilketaren bidez egiten den bigarren hizkuntzaren bereganatzea lehenengo hizkuntzaren antza duela.

Weberren esanetara (Manterola, 2010), Haur Hezkuntzan bi jarduerak mota bereizten dira:

a) Talde osoko ekintzak: errutinak, elkarrizketak, abestiak, ipuinak...

b) Talde txikiko ekintzak: gelako txokoak edo eremuak, adibidez, sukaldetxea, plastilina gunea, moztaroen txokoa... Weberren ustez ere, Haur Hezkuntzan bigarren hizkuntza barnerratzeko umeez hainbat estrategiaz baliatzen dira.

Lehenik eta behin, irakasleak hitz egiten duenean haurren helburua ez da izaten esan duen guztia ulertzea, izan ere, haurrek irakaslearen asmoak barnerratzeko dute helmuga.

Horretarako, hizkuntzaren kanpo elementuak erreparatzen dituzte. Horretaz aparte, haurrek irakasleak esaten duenari arreta handia jartzen diote, ondoren, beraien lehenengo hizkuntzara joaten dira, hau da, bigarren hizkuntza horretan ustez ulertu dutenari lehenengo hizkuntzako hitzak jartzen dizkiote. Weberren arabera, esanahien negoziazioa egiten dute haurrek. Ikaskideek planteatzen dituzten interpretazioak erabiltzen dituzte, hots, talde guztiaren artean bilatzen dute irakasleak esandakoaren esanahia.

Horrez gain, Manterolaren (2010) ustez, asko errepikatzen diren ekintzek laguntzen dute irakasleak esaten duena ulertzen. Horren ondorioz, haurrek egoera aurreikusteko aukera izango dute eta hizkuntza barneratzen joango dira pixkanaka. Normalean haurrek imitazioz eskuratzen dituzte gaitasunak eta irakaslearen eredu jarraituz bigarren hizkuntza hori ikasiko dute. Imitazioaz gain, umeek testuingurura jotzen dute ulermena osatu ahal izateko, horregatik ere errutinak oso baliagarriak izango dira murgilketarako. Gainera, mintzaira erabiltzeko aukerak luzatu behar zaizkie, esate baterako, ikaskideen edo irakaslearen aurrean hitza izateko, galderak egiteko edo irakasleak esaten duena interpretatzeko.

Hovik-ek ere errutinen garrantzia azpimarratzen du: *“Errutinetan irakasleak hizkuntzaren zenbait erabilera behin eta berriz errepika ditzakeelako eta horrela ikasleen ikaskuntza bideratu”* (Manterola, 2010, 55.orr). Errutinak mota askotakoak izan daitezke, adibidez, errutina izan daiteke, jatorduak edo arropa jantzeko edo kentzeko momentua ere.

Mardek (Manterola, 2010) esaten duen arabera, irakaslea hizkuntzaren eredu izan behar da haurrentzat. Irakasleak hizkuntza landua izan behar du eta horrekin batera bere ikasleen hizkuntza bideratu behar du. Horregatik, errutinak oso baliabide eraginkorrak dira, haurra gutxika bakarrik uztea ahalbidetzen baitute. Azkenik esan beharra dago, irakasleak laguntza eskaini behar duela, euskarria izango dela umeentzat.

2.2.3. Ahozko hizkuntza lantzeko estrategiak

Aipatu beharra dago, haurrak izango duen lenguaiarekiko lehenengo esperientzia familiarekin izango dela (aita, ama ...). Jaiotzen denetik gurasoekin egoten da kontaktuan, beraz, eskolara sartzen denean izango duen ahozko hizkuntza gaitasuna, familian izandako esperientzien arabera izango da (Tough, 1979).

Arestian aipatu den bezala, Haur Hezkuntzan hizkuntzaren ikasketa komunikazioan eta elkarrizketetan oinarritzen da. Ahozko hizkuntzari dagokionez, Haur Hezkuntzako helburua, Lehen hezkuntzara pasatzeko haurrek behar dituzten oinarriak garatzea izango litzateke. Hau da, beharrezko hiztegia eta ahoskera bereganatzea. Ulermen gaitasuna lortzen badute ere, praktika behar dute. Horretarako haurrei eskoletan hitz egiteko aukerak eman behar zaizkie. Horregatik ikasgelan aho hizkuntza lantzeko orduan irakaslearen papera funtzezkoa bihurtzen da. Izan ere, umeen ikaskuntza, izaten dituzten zuzeneko esperientzien arabera izaten da.

Eskoletan ematen diren jarduera asko, irakaslea bigarren plano batean egonda eman badaitezke ere, ez da horrela mintzatzeari buruz hitz egiten dugunean. Ahozko hizkuntza garatzeko beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa bihurtzen baita, elkarrizketan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duelako hain zuzen. Toughen (1979) arabera, elkarrizketa batean, kontaktuan egongo den helduak edo irakasleak haurrak hausnartzera bultzatu beharko ditu estrategia batzuetaz baliatuz. Zenbait esperientzia eskainiz, arrazonamendua bultzatuz...

Toughen (1979) esaten du, elkarrizketaren bidez ere, haurraren arrazoimenean eragingo duten esperientziak ematen zaizkiola eta aldi berean, curriculumean agertzen diren eduki espezifikoak lantzeko aukera ematen duela. Hori bera ere esaten du Silvia Rojas-Drummond (2001). Mexikoko unibertsitatearekin egindako ikerketa batean azaldu zuten, hizkuntzaren erabilerak ikasgaien edukien ikasketan, arazoaren konponketan eta esperientzia ezberdinen ulermenean eragin dezakeela. Gainera, irakasleak haurrarekin hitz egiteko moduan arreta jarriz gero, umeak izan ditzakeen zailtasunei buruzko informazioa lortu dezake.

Baina, elkarrizketa lan egiteko tresna bezala erabili ahal izateko irakasleak argi izan behar du nolakoa den eta nola erabili dezakeen, hau da, ongi ezagutu behar du nolakoak izan behar diren hurrekin izan beharreko elkarrizketak eta hauek egoki emateko estrategiak.

Ruiz Bikandiren (2000) arabera, estrategia horiek balio dute alde batetik, ikasleei arrazoiketa-esperientzia emateko eta bestetik, ikasketa konketuak bideratzeko. Gainera, hizkuntzaren erabilerari mesede egiten diote. Ruiz Bikandik proposatutako estrategia horiek Tough-ek (1979, 113.orr) proposatzen dituenekin bat egiten dute:

a) ORIENTATZEKO ESTRATEGIAK: Gai baten inguruan modu zehatz batean hausnarketa egitera bultzatzen dutenak. Esate baterako: “Zer ari da gertatzen hemen?”; “Kontaidazu horren arabera”; “Zergatik uste duzu makilak jarri behar direla?”

b) ERRAZTEKO ESTRATEGIAK: Orientazio estrategiekin gauzatu diren ideiak barneratzeko estrategiak dira. Hiru motatakoak izan daitezke:

Osatzekoak: Umeak erantzuna eman eta gero, pentsatzen duen horretan aurrerapauso bat emateko eskatzen duten galderak: “Zaila dela esan duzu, zein da arazoa?”; “Beste zerbait etortzen zaizu burura?”

Fokalizazioak: Galdera zehatzak dira. Esan duena zehazteko eskatzen diotenak: “Zenbat sagarra daude?”; “Zein da lehendabizikoa?”

Egiaztatzekoak: Esan duena egiaztatzeko edo baztertzeko esaktzen diotenak, formulazio diferentearekin: “Zenbat direla esan duzu?”; “Benetan uste duzu krokodiloa dela?”

c) INFORMAZIO ESTRATEGIAK: Irakasleak informazioa era desberdinean eman dezake, deskribapenak eginez, istorioak kontatuz, analogiak erabiliz, laburpenen bitartez edo

argudioen bidez. Adibidez: “Zaldiak ugaztunak dira, beraz, ezin dezakegu esan arrautzak jartzen dituztenik”; “Garai batean ez zegoen internetik eta liburuetan bilatzen zuten behar zuten informazio guztia”

d) EUSKARRI ESTRATEGIAK: Umearen ahaleginak onartu eta aurrera jarraitzen animatzen dutenak. Ondoan bere lana baloratzen duen mintzaidea daukala egiaztatzen diotenak. Askotan fisikoak izaten dira eta ez hitzezkoak. Besteak beste: Espresioa, keinuak, begiradak...

e) BUKAERA ESTRATEGIAK: Elkarriketa bukatu behar denean gaiak aldatu behar dela adierazten dutenak. Hauek erabiltzen ez badira, irakasleak interesik ez balu bezala sentituko da haurra. Adibidez: “Gorde hori kajoiean eta joan jolas parkera”; “Bai, noski. Bihar jarraituko duzu horrekin.”; “Pentsatu piska bat gehiago eta ondoren galdetu”

Horrez gain, irakasleak erabiltzen duen hizkuntza zaindu behar du, hezitzailea izango baita haurrak izango duen eredurik garrantzitsuena. Haurren berezko gaitasuna alde batera utzi gabe, kontuan hartu behar da irakasleak argi eta garbi hitz egin behar duela.

2.2.3.1 Ahozko hizkuntzaren sustapena talde elkarriketaren bitartez

Banakako elkarriketez gain, ahozko hizkuntza sustatzeko talde elkarriketak baliagarriak izan daitezke. Haurren artean mintzamina sustatzeko eta, horrekin batera, talde hausnarketa sustatzeko balio dutelako, irakaslearen papera bigarren plano batean utziz (Mercer, 2001).

Kontuan izan beharko den gauza bat da, nahiz eta irakaslea bigarren plano batean geratu, bere jarrera aktiboa izan behar dela. Hau da, haurrak zereginetan bideratu behar ditu. Horrela, pentsatzen dutena taldean adierazteko eta hausnartzeko bidean lagunduko baitie.

Horregatik irakasleak talde elkarriketetan, jarduerak antolatu eta gidatuko ditu, hurrei informazioa eta orientazioa eskainiko die eta horrekin batera, ikasi dutenari buruz pentsatzera eta hausnartzera eramango ditu. (Mercer, 2001, 205.orr)

Hori egiteko, lehendabizi hezitzaileak jardueraren helburuak azalduko ditu gelan. Eta aldi berean, jarduera lehen aldiz egiten bada, talde elkarriketa baten ezaugarriak azalduko ditu (zertarako egiten den, nola, zein ezaugarri dituen...).

Hurrekin ere hasiera batean arau batzuk markatu behar dira elkarriketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, hauek dira Merceren (2001, 205-206.orr) ustez hurrekin jarri behar diren arauak:

a) Hurrek argi izan behar dute ideiak taldean adierazi behar dituztela eta gainontzekoek entzun behar dituztela.

b) Banan-banan hitz egin behar dutela jakin behar dute.

c) Jakin behar dute, guztien iritziak errespetatu behar direla.

d) Eta horrekin batera, adierazten dituzten ideien zergatia zein den esan behar dute.

e) Norbaitekin ez badaude ados, zergatik ez dauden ados esan behar dute.

f) Akordio batera iristen saiatu behar dira amaieran.

Umeez aparte irakasleak era hainbat gauza izango ditu kontuan. Izan ere, Merceren (2001) ustez, talde elkarrizketak, ideiak elkarbanatzeko, arrazoiak emateko, iritziak eztabaidatzeko, hausnartzeko, akordio batera iristeko... egiten dira, baina beti, bakoitzaren ardurak kontuan hartuz eta haur guztien parte hartzea bermatuz.

Hau da, irakasleak haurrei taldean hitz egiteko modu desberdinak erakutsi behar dizkie. Horrelako ariketetan, talde lanaren bitartez haurrak arazo bati irtenbidea bilatzen saiatu behar dira, baina, arazo horren konponketa soilik aho hizkuntzaren erabileraren bitartez egingo dute. Saio bakoitzaren bukaeran, irakaslearekin egin dutenari buruz eta ikasi dutenari buruz hitz egingo dute.

Haurrek helduekin elkarrizketak izatea aberasgarria izan daiteke. Adibidez, talde elkarrizketa horietan jende heldua gonbidatu edo adin desberdinetako haurrak elkartu daitezke. Horrela, generazio desberdinen arteko jakintzak elkartrukatu daitezke eta hori ahozko hizkuntza garatzeko lagungarria izan daiteke, bai mintzamena lantzerako orduan eta bai ulermenean. Azkenik aipatu behar da, aho hizkuntza lantzeko, hezkuntza aukera egokia izan daitekeela, batez ere, lengoaia erabiltzeko aukera anitzak eskaintzen dituztelako eskolan edo ikastolan egiten diren jarduerak.

2.2.3.2. Ahozko hizkuntzaren sustapena marrazkiaren bitartez

Haur Hezkuntzan bereziki egiten den jarduerak da marrazketa. Hala ere, batzuetan ez zaio ematen duen garrantzia edo ez zaio ateratzen izan dezakeen etekina. Batez ere komunikazioaren aldetik. Haur Hezkuntzako garaian, hiru eta sei urte bitartean, idazketa komunikazio modu bezala ez da bereziki lantzen den zerbait. Haurrak idazten hasten dira eta teknika lantzen dute gehien bat. Horregatik marrazkia ahoz edo idatziz komunikatzeko tresna baliagarri bezala ikusi daiteke.

Haurrek marrazkiaren bitartez mundua irudikatzen dute, hau da, beraientzat hitz egiteko modu bat izan daiteke. Izan ere, marrazkiaren bitartez pentsamendua eta komunikazioaren arteko lotura egiten dute (Pujol, 2007). Marrazkiaren bidez komunikatu dutena aho hizkuntzara eramateko erraza den zerbait izan daiteke haurrentzat, izan ere, ideien antolaketarako balio dezake. Umeek pentsatzen dutena marrazkiaren bidez antolatu eta gero, hitzen bidez errazago azaldu dezakete (Pujol, 2007).

Pujolen (2007) arabera, irakaslea gidaria izan behar da ahozkoa sustatzeko orduan. Hezitzaileak ahozko anotazioak egin ditzake, baina beti ere, komunikazioan zentratuz eta ez marrazkiaren hobekuntzan. Esan dugun bezala, marrazkiaren bidez errealitatea irudikatu daiteke. Ikasleek ideien edo kontzeptuen sorrera horretan euskarri modura erabili dezakete marrazkia (Pujol, 2007).

Horrez gain, errealitatea ikusteko hainbat modu erakusten dituenek, garrantzitsua bihurtu daiteke horri buruz hitz egiteko aukera ematen duelako: gauzen ezaugarriak, aldaketak, izan dezaketen ondorioak... Hau da, hausnarketarako bidea ematen duen zerbait izan daitekeela aipatzen du Pujolek (2007) ere. Honen ustez, bakoitzak bere mundua marraztu dezake haurra hausnartzen jarritz. Hori ere lengoaiaren bitartez azaltzeko baliagarria izan daitekeen jardura da.

Aipatu beharra dago ere, umeei irudi bat egiterakoan, lehenago izandako esperientziak kontuan hartuko dituztela. Hauek orain dituztenekin harremanetan jarriko dituzte eta ondoren izango dituztenetan eragina izango dute. Horrekin irudimena eta memoria lantzeaz gain, ahozkoa ere landuko du haurrak eta irakaslearen laguntzarekin, hau da, galderak eginez, inkoherentziak azalduz, zalantzak, iritziak... azaltzeko bideratu dezakegu (Pujol, 2007).

Talde jardueretan lekua izan dezakeen zerbait da marrazkia. Talde handian edo talde txikietan marrazkiak edo muralak egin ditzakete haurrek eta ondoren guztion artean azaldu dezakete egin dutena, adibidez.

Pujolek (2007) esaten duen bezala, marrazketak idazketa, azalpena eta justifikazioa ahalbidetzen ditu. Esate baterako marrazki bat egin daiteke gelan eta horren justifikazioa aho hizkuntzaren bidez egin dezakete, zergatik egin duzu?, nola egin duzu?...

Hau guztia kontuan hartuz, esan daiteke, marrazkia aho hizkuntza lantzeko jardura baliagarria izan daitekeela eta, Haur Hezkuntzan asko erabiltzen denez, horretarako aprobetxatu daitekeen zerbait izan daiteke.

2.2.3.4. Hizkuntzaren sustapena objektuen bitartez:

Manterolak (2010) bere lanean aipatzen dituen autoreen artean Froment eta Leber ekarri nahi ditugu hona. Froment eta Leberrek (2003) panpinaren bidezko irakaskuntza edo "Ploum" aztertu zuten. "Ploum" txontxongilo baten modukoa da eta haurrek banaka eta txandaka egunero etxera eramaten dute. Eskolara bueltatzen direnean etxean edo kanpoan izandako bizipenak kontatuko dituzte gainontzekoen aurrean.

Autore hauen arabera, polilogoia sortuko litzateke horrela gelan. Hau da, egoera gidatzen duena ez da soilik irakaslea izango, haurrek ere horretan parte hartuko dute elkarrekintzen bitartez, oso dinamikoa izango da eta ez da alde zuzenetik markatuta izango (Manterola, 2010). Beraien ustez, , jardura honi etekina ateratzeko, errepikatzen den zerbait izan behar da. Gelan maiztasun handiarekin egiten bada, errutina bihurtuko da eta ikasleei esanahia eraikitzen lagunduko die.

Mota honetako jardura ez da ipuina kontatzea edo sortzea, baina horrelakoak ipuinekin ere egin daitezke. Hau da, panpina etxera eraman beharrean haurrek ipuin bat eraman dezakete eta txandakatu, ondoren gelara ekarri eta horrekin bizi dituzten bizipenak kontatu.

Amaitzeko Manterolak (2010) bere lanean azaltzen du, "Ploum"-en bidezko jarduera hauek egoera komunikatibo jakin batzuk sortzen lagundu dezaketela, izan ere, hizkuntza heburu komunikatibo garbi eta zehatzekin erabiltzeko testuinguruak sortzen dituelako (215.orr).

3. HELBURUAK

Gradu Amaiera Lan honekin Iñigo Aritza Ikastolan euskararen erabileraren bilakaera aztertu nahi izan da. Hala ere, lan honen helbururik garrantzitsuena euskara sustatzea denez, Ikastola honetan erabiltzen hasi diren marko pedagogiko berria kontuan hartu behar da. Horren arabera, hurrengo helburuak finkatu ditugu:

- 1- Eskolan euskaren erabilerak behera egin duen jakitea.
- 2- Haurrek eskolako harremanetan erabiltzen duten hizkuntza zein den jakitea.
- 3- Marko pedagogiko berriak euskararen erabilerari dagokionez izan duen eragina aztertzea.
- 4- Euskararen sustapenerako proposamenak sortzea marko pedagogiko berriaren barruan.

4. METODOA

4.1. TESTUINGURUA

4.1.1. Iñigo Aritza Ikastola

Iñigo Aritza Ikastola, gurasoen ikaskuntza kooperatiba bat da. Bere baitan Ziordia, Olazti, Altsasu eta Urdiaingo ikasleak biltzen ditu eta ikastetxe euskalduna, anitza, ez diskriminatzailea eta akonfesionala da. Halaber, Euskal Herriko ingurune historiko, sozial, politiko ekonomiko eta kulturean integratua dago.

Ikastetxeak 300-400 ikasle inguru ditu eta bi eraikinez osatua dago: Txioka, bertan Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa biltzen dira; eta Iñigo Aritza, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jasotzen dituenak.

Ikastola honek, ikasleak osotasunean hezteko hartzen du xede bezala, pertsonaren alderdi guztiak hartzen dira kontuan, hau da, oreka emozionala, balore eta jarduera etiko eta sozialen onarpena, prestakuntza intelektuala, garapen fisikoa...

Aipatu dudan bezala, ikastola irekia, anitza eta ez diskriminatzailea da, gizartean ematen diren aldaketa azkarrei eta heziketa premiei egokitzen dakiena, bertaratzen diren ikasleen aniztasunari erantzuteko gai dena bere hizkuntza proiektuan integratuz.

Eztabaida eta koordinazioaren bidez ikastola honek kudeaketa eta funtzionamendu eredu egoki eta eraginkorrak ezarri nahi ditu, hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetza sustatuz.

Ekimen sozialetik sorturiko erakundea izaki, ikastola gizartean eraginkorra da euskara eta euskal kulturaren esparruan, eta gainerako ikastolekin batera Euskal Herriko Eskola Nazionala osatu nahi du.

4.1.1.1. Haur Hezkuntzan erabiltzen dituzten espazio ezberdinak

Iñigo Aritza Ikastolan Txioakako eraikina da Haur Hezkuntzako haurrek erabiltzen dutena eta bertan sei espazio nagusi bereizi daitezke. Horien artean, gela horia (3 urtekoen ohiko gela), gela laranja (4 urtekoen ohiko gela), gela berdea (5 urtekoen ohiko gela), adierazpen gunea, kanpo espazioa eta psikomotrizitate gela edo salto gela.

Gela hauek material eta ojetu desberdinez hornituak daude eta haurrak espazio hauetatik zirkulazio librea ibiltzen dira egunerokoan. (Informazioa osatzeko: ikusi C eranskina)

4.1.1.2. Haur Hezkuntzako errutinak

Iñigo Aritza ikastolako haurrak bere egunerokoan zirkulazio librea ibiltzeaz aparte hainbat errutina jarraitzen dituzte. Besteak beste, gelara sartzen direnean arduraduna zein den erabakitzen dute eta asteko eguna, eguraldia eta zein txokotan ibiliko diren esaten dute.

Hau egin eta gero libreki mugitzen dira espazio batetik bestera hamaiketako jan arte. Hortik aurrera kanpo espaziora ateratzen dira.

Amaieran, etxera joan baino hamar minutu lehenago bakoitza bere gelara sartzen da eta irakasleak ipuin bat kontatzen du.

Arratsaldeko dinamika goizekoaren berdina izaten da, salto gelara edo ingelesa dutenean kenduta. Astelehenetik ostiralera jarraitzen dute baina asteazken eta ostiraletan goizez bakarrik egoten dira ikastolan. (Informazioa osatzeko: ikusi D eranskina)

4.1.1.3. Euskararen egoera Iñigo Aritza Ikastolako familietan

Esan daiteke, Iñigo Aritza ikastolan bere haurrak matrikulatzen dituzten familiek euskararekiko duten jarrera positiboa dela. Izan ere, familia gehienetan badago euskara ezagutzen duen gurasoren bat. Hala eta guztiz ere, horrek ez du euskararen erabilera bermatzen.

Ingurua kontuan hartzen badugu, Sakanako datu soziolinguistikoak begiratu, euskararen erabilera haurren presentzia dagoenean eta ez dagoenean desberdina da. Esate baterako, helduen artean, bakarrik daudenean euskararen erabilera %17,3koa izaten da eta haurrak bakarrik daudenean, erabilera %21,7koa da. Aldiz, haurrak eta helduak nahastuta daudenean gehiago igotzen da erabileraren ehunekoa, %31,5koa izanda.

Datu hauek erabileraren aldetik garrantzitsuak diren zenbait ondorio erakusten dizkigute. Alde batetik, ikusten da nola gurasoek, bakarrik daudenean, gaztelaniara jotzeko joera duten. Horrekin, Sakanako euskaldunen zati handi bat erdaraz hobeto moldatzen dela

ikusten da, salbuespenekin. Ondorioz, hizkuntza-gaitasunean ahulguneak daudela erakusten digu horrek.

Beste alde batetik, haurrak eta helduak elkarrekin harremantzen direnean euskararen erabilerak gora egiten duenez, hizkuntza hori erabiltzeko motibazio ezberdinak daudela esan dezakegu. Datu horien arabera, esan daiteke helduek badutela euskara transmititzeko gogoia eta konpromezua, hau da, nahiz eta erdaraz hobeto moldatu, haurrekin euskaraz egiteko joera dute. Teorian, euskara desagertzearen kezka dela eta, gurasoek konpromezua erakusten dute hizkuntzaren transmisioari dagokionez. Beren seme-alabak euskaraz ikas dezaten ahaleginak egiten baitituzte. Baina, praktikara jotzen dutenean, helduen arteko harremanak gaztelaniaz izaten dira.

Esan daiteke, inguru hauetan haurrak euskara erabiltzeko mugatuagoak daudela, ingurune euskaldunagoetan baino. Eta horrez gain, gurasoen eredia jarraituta, haur euskaldunek gaztelaniara jotzen dute momentu askotan.

Hau guztiagatik, amaitzeko, esan dezakegu Iñigo Aritzan haurrak matrikulatzen dituzten gurasoek euskararekiko konpromisoa adierazten dutela, baina erabilerara jotzen dutenean ahulguneak nabaritzen direla.

4.1.1.4. Iñigo Aritza Ikastolan euskara sustatzeko egiten diren ekintzak

Iñigo Aritza Ikastolan euskara batzordea dago. Batzorde horretan, irakasle, ikasle eta familiarek parte hartzen dute eta euskara sustatzeko ekintzak antolatzen dituzte urte osoan zehar zenbait helburu kontuan hartuz. Helburuak berdinak dira Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, baina jarduerak aldatu egiten dira.

EUSKARA SUSTATZEKO HELBURUAK:

- 1- Zehar lerroetan hizkuntzaren trataeraren jarraipena egitea eta sendotzea.
- 2- Euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak burutzea.
- 3- Irakasleen hizkuntza eredia eta hizkuntzarekiko jarrera indartzea.
- 4- Irakasleen arteko hizkuntza erabilera areagotzea.
- 5- Taldekatze motak hizkuntzaren ikuspegitik zehaztea.
- 6- Jolasaldietako irakasle-ikasle arteko euskararen erabilera areagotzea.
- 7- Irteera, egonaldi eta kanpaldietan ikasleen arteko hizkuntza erabilera sustatzea.
- 8- Sarrera irteerak eragiteko eremutzat hartzea.
- 9- Jantokian euskararen erabilera areagotzea.
- 10- Autobusetako hizkuntza erabilera sustatzea.
- 11- Euskal jai eta ospakizunak indartzea.
- 12- Ikastolako eta gurasoen arteko harremanak sendotzea.

4.2. PARTE HARTZAILEAK

Iñigo Aritza Ikastolan Haur Hezkuntzan euskararen erabilera zein den ezagutzeko hainbat azterketa egin ditugu. Lehenik, Haur Hezkuntzan gela bakoitzean behaketa bat egin dugu, espazio ezberdinetan haurren arteko harremana eta irakaslearekin duten harremana behatu ahal izateko.

Horrez gain, hiru irakasle elkarrizketatu ditugu barrutik euskararen egoera zein den jakiteko. Amaitzeko, eta Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspegitik proposamenak egin ahal izateko, Arizmendi Ikastolako irakasleak elkarrizketatu ditugu.

Hau guztia egin ahal izateko, ikerketa honetako parte hartzaileak hurrengoak izan dira:

- Iñigo Aritza Ikastolako HHko 3 gela: 3 urteko gela, 4 urteko gela eta 5 urteko gela. Guztira 63 ikasle.
- Iñigo Aritza Ikastolako bi irakasle ohi: Irakasle 1 eta Irakasle 2.
- Iñigo Aritza Ikastolako Haur Hezkuntzako koordinatzailea: Irakasle 3.
- Iñigo Aritza ikastolako Euskara Batzordeko kidea: Irakasle 4.
- Arizmendi ikastolako irakaslea: Irakasle 5.

4.3. ERABILITAKO TRESNAK

Gradu Amaierako Lan honetan, informazioa bi bide erabiliz jaso da. Alde batetik, behaketa sistematikoa erabili dugu haurrak nola mintzatzen diren jakin ahal izateko eta beste alde batetik, elkarrizketa erabili da gaur egungo euskararen egoera eta marko pedagogiko berria hasi baino lehen euskararen egoera nolakoa zen aztertu ahal izateko.

4.3.1. Behaketak

Behaketa egiteko hiru egun erabili ditugu, egun bakoitzean adin tarte bat behatu ahal izateko. Hau da, 3 urteko haurrak, 4 urteko haurrak eta 5 urteko haurrak. Denbora tarte berdina behatu da, goizeko 10.30tatik, 12.30ak arte, guztira 2 ordu gela bakoitzean.

Behaketa egiteko berriaz sortutako taula batean hainbat irizpide finkatu ditugu. Esate baterako, umeez harremanak zein hizkuntzatan dituzten behatu da: berdinen arteko harremanak zein hizkuntzatan izaten dituzten eta irakasleekin harremanak zein hizkuntzatan izaten dituzten.

Horrez gain, talde txikian, talde handian eta kanpo espazioan behatzeko aukera izan dugunez, hauen arteko alderaketa egitea interesgarria dela pentsatu dugu.

Baita ere, nesken eta mutilen arteko bereizketa egitea aproposa iruditu zaigu, generoaren arabera erabilera aldatzen den edo ez jakin ahal izateko.

Amaitzeko, haur bakoitzaren ama-hizkuntza zein den aztertu dugu euskararen erabileran eragina izan dezakeen ikusi ahal izateko. (A-1; A-2 eta; A-3 eranskina)

4.3.2. Elkarrizketak

Elkarrizketen bidez hainbat gaiei buruzko informazioa lortu nahi izan da. Elkarrizketak Iñigo Aritza ikastolako irakasleei egiteaz gain, Arizmendi ikastolako irakasle bati ere egin zaio. Honekin euskarak Ikastolan izan duen bilakaera ikusteaz gain, Arizmendi ikastolan Konfiantzaren Pedagogiaren ikuspegitik euskara sustatzeko zein estrategia erabiltzen dituzten ikusteko aukera izan da.

4.3.2.1. Iñigo Aritza Ikastolako irakasleei egindako elkarrizketak

Irakasleei egindako elkarrizketak gaur egun eta marko pedagogikoa erabili baino lehen euskararen egoera zein den ikusteko egin dira. Alde batetik, lehen eta orain nolako den erabilera galdetu zaie irakasleei eta beraien ustez zergatik izan duen bilakaera hori.

Horrez gain, beraien ustez familiek zein punturaino eragiten duten galdetu zaie eta marko pedagogiko berriak horretan eragina duen ala ez.

Marko pedagogiko berria baino lehen erabiltzen zituzten estrategien berri izateko ere tartea izan da elkarrizketa honetan, eta orain erabiltzen dituzten estrategien artean desberdintasunak dauden ikusteko aukera izan da.

Haur Hezkuntzatik, Lehen Hezkuntzara pasatzerako orduan haurrek hainbat gaitasun izan behar dituzte ulermenaren aldetik, horregatik horri buruz ere galdetu izan zaie. Horrekin batera, gaur egun, estrategien beharrari buruz hitz egiteko aukera izan dute elkarrizketa honetan eta euskararen sustapenari atal bat eskaini zaio.

(B1, B2 eta B3 eranskina)

4.3.2.2. Arizmendi Ikastolako irakasleari egindako elkarrizketa

Arizmendi Ikastolako irakasleari egindako elkarrizketarekin beste mota bateko informazioa lortu nahi izan da. Izan ere, marko pedagogiko berriaren barruan Konfiantzaren Pedagogia dago eta hori kontuan hartuz lan honetan proposamenak egin nahi ditugu euskara sustatzeko.

Lehenik eta behin kontuan hartu behar da, Arizmendi Ikastola kokatuta dagoen ingurune soziolinguistikoa eta Iñigo Aritza ikastolako desberdinak direla, Arizmendiko ingurunea Altsasukoa baino euskaldunagoa baita.

Hau kontuan hartuz, eta euskararen bilakaera Euskal Herri osoan kezka denez, beraien egoeraren berri galdetu zaie. Horrez gain, euskararen erabilera sustatzeko Konfiantzaren Pedagogiaren barruan bereziki ahozkoa lantzeko atalen bat badagoen ere galdetu zaie eta bertan erabiltzen dituzten estrategien berri ere jakin nahi izan dugu elkarrizketa honen bitartez. Hau da, euskaraz hitz egiten dutenean zer motatako jarduerak egiten dituzten, haurren sena errespetatzeko nola sortu euskararekiko konfiantza, nola egin Konfiantzaren Pedagogiaren aurka ez egiteko, espazioak sortu daitezkeen...

Familien berri ere galdetzeko tartea izan da solasaldian eta estrategiak pertsonalizatzeari buruz informazioa biltzeko aukera izan dugu. Adibidez, adin tarte bakoitzarentzat jarduera mota bat edo beste. (B-4 eranskina)

4.4. INFORMAZIOAREN ANALISIA

Informazioaren analisia egiteko behaketaren bidez tauletan jaso dugun informazioaren ehunekoak atera ditugu behaketarako erabili diren irizpide bakoitzeko, horrela, haurren arteko harremanetan zein hizkuntza gailentzen den ikusteko aukera izan dugu, bai berdinaren arteko harremanetan eta bai irakaslearekin dituzten harremanetan, testuinguruaren arabera. Azterketa adinaka banatu dugu, adinen arteko ezberdintasunak hobeto behatu ahal izateko eta gainera, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak ikusi ahal izateko N: neskek eta M: mutilak bereiztu ditugu. Baita ere, ama-hizkuntzak izan dezakeen eragina aztertzeko aukera izan dugu.

Elkarrizketetan bildutako informazioa aztertu ahal izateko, kategoria sistemak erabili ditugu. Taula batean dimentsioak azalduz eta horien barruan zenbait kategoria eta azpikategoria aipatuz. Hori guztia baliagarria izan zaigu alde batetik, elkarrizketetan lortutako informazioa aztertzeko eta beste alde batetik, Arizmendi Ikastolatik lortu dugun informazioa kategorizatzeke.

1. Taula: Elkarrizketen informazioa aztertzeko kategoria sistema

DIMENTSIOA	KATEGORIA	AZPIKATEGORIA
1. EUSKARAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen eta orain arteko desberdintasunak. - Esperientziak eskolara mugatzen dira. - Lotura emozionalaren arabera. - Hizkuntza behikularra etorkinentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen gehiago erabili. - Eskolatik kanpo erdara erabiltzen da. - Lidergoak eragin handia.
2. ERABILERA JEISTEAREN ARRAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Familiek eragina. - Inguruak eragina. - HH-n hautu konzienterik ez. - Euskararen akademizazio prozesua. - Denbora urria. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gurasoak erlaxatuta daude, konpromezu eza, harremanak erderaz, ama-hizkuntza. - Gizartearen aldaketa. - Presioa ugaritu da eta denbora gutxi eskaintzen zaio euskarari.
3. NESKEN ETA MUILEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK	<ul style="list-style-type: none"> - Desberdintasunak daude 	<ul style="list-style-type: none"> - Neskek gehiago erabili. - Nahastuta daudenean normalean gazteleeraz.
4. ZAILTASUNAK ETORKIZUNEAN	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle batzuk maila baxua. - Errazagoa zaie erdara. - Ahozkoan zailtasunak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Etxean ez dute bultzadarik. - Jariora praktikatu behar da.

5. MARKO PEDAGOGIKO BERRIA	- Eragilea den zalantza. - Irakasleak batzuetan galduta. - Estrategien aldaketa eman da. - Ateen irekierarekin gaztelera ikastoletara sartu da.	- Ez du asko laguntzen. - Noraino sartu daiteke irakaslea?
6. IRAKASLEAREN ROLA	- Formakuntzak garrantzitsuak. - Batzuetan inprobisatu.	- Ahal den guztia erabiltzen da. - Batzuetan hartu behar ez diren jarrerak.
7. IRAKASLEAREN ESTRATEGIAK	- Haurraren iritsi behar dira. - Motibazioa garrantzitsua. - Haurra protagonista bihurtu. - Gurasoekin harremanetan	- Ingurunea aprobetxatu. - Aukerak eman. - Estrategiak familietara eraman.
8. FORMAKUNTZAK: EUSKARAREN SUSTAPENA	- Beharrezkoak dira. - Irakasleek ez dituzte zuzenean jasotzen.	- Euskara batzordetik argibideak jasotzen dituzte.
9. EUSKARAREKIN ATXIKIMENDUA SORTU	- Enpatia. - Maila baxuenetatik hasita harreman positiboa sortu. - Irakasleek estrategiak erabili. - Espazio berriak sortu gabe.	- Erderaz egiten dutenean ez dira gure kontra joaten: erosoago daude. - Motibazioa beharrezkoa. - Testuingurua beharrezkoa. - Familiak beharrezkoak.
10. FAMILIAREN INPLIKAZIOA	- Euskara bizitzeko modua aldatu da. - Prozesuan inplikatu behar dira.	- Gurasoak erlaxatuagoak.
11. IKASTETXE BAKOITZAK BERE PLANA SORTU	- Bakoitzak berea baina hainbat puntu komunean egon daitezke.	

5. EMAITZAK

Aurreko atalean azaldu dugun bezala, informazioa bi modu ezberdinetan jaso dugu: lehenik behaketaren bidez lortutako informazioa eta bigarrenik elkarrizketen bidez jaso duguna.

Atal honetan bi tresna horien bitartez jaso dugun informazioaren emaitzak aurkeztuko dira. Lehenengo, behaketaren emaitzak emango ditugu ezagutzera eta ondoren, elkarrizketetan ateratako emaitzak azalduko ditugu, horretarako "Informazioaren Analisisa" atalean sortu dugun kategoria sistema erabiliko dugu.

5.1 BEHAKETAREN EMAITZAK

Atal honetan behaketaren bidez jasotako emaitzen berri emango dugu, lehenik eta behin haurren harremanaren arabera zein hizkuntza erabiltzen duten testuinguru bakoitzean, horren barruan ere, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak eta azkenik, ama hizkuntzak duen eragina azalduko dugu, guztia adinaka banatuta.

5.1.1. Hizkuntzaren erabilera 3 urte

a) Berdinen arteko harremanetan

Hasteko, emaitzen arabera esan dezakegu 3 urtekin berdinen arteko harremanetan ez dutela euskaraz egiten. Behaketaren bitartez atera izan duguna da bai talde txikian, bai talde handian eta bai kanpo espazioan 3 urteko haurrek ez dutela beraien artean euskara erabiltzen. Neskek zein mutilek gaztelaniaz egiten dute eta ama-hizkuntzak ez du eraginik gazteleraz mintzatzeko orduan.


b) Irakaslearekin dituen harremanetan

3 urteko haurrek beraien artean gaztelania erabiltzen duten arren, irakaslearekin dituzten harremanetan aldatu egiten da. Zerbait gehiago erabiltzen dutela esan dezakegu.

Talde txikian daudenean, irakaslearekin 3 urteko ikasleen %48,82k erabiltzen dute euskara edo saiatzen dira irakaslearengana zuzentzen direnean. Horietatik, %60 neskek dira. Eta %48,82 horietatik %50ak euskara du ama-hizkuntza. Talde handian daudenean berriz, %34k egiten dute euskara eta horietatik, %80 neskek dira. Gainera %34 horietatik %50ak ama hizkuntza euskara du.

Kanpo espazioan erabilerak behera egiten duela esan dezakegu. Izan ere, umeen %17 mintzatzen dira euskaraz. Horietatik, %70 neskek dira. Eta ama-hizkuntzak duen eraginaren arabera, %17 horietatik denek dute euskara ama-hizkuntza bezala.

1. Grafikoa: Hizkuntzaren erabilera irakaslearekin dituzten harremanetan 3 urte.



Iturria: egileak sortua


5.1.2. Hizkuntzaren erabilera 4 urte

a) Berdinen arteko harremanetan

4 urtekoen kasuan, zertxobait gehiago erabiltzen dute euskara beraien artean hitz egiterako orduan. 4 urteko haurren, %12k euskaraz egiten dute beraien artean talde txikian daudenean. Horietatik, denak dira neskek eta gainera %66ak ama hizkuntza euskara dauka. Talde handian daudenean zerbait aldatzen da, umeen %32ak egiten baitu euskaraz. Horietatik %62 neskek dira eta %62ak ere ama-hizkuntza euskara dauka.

Kanpo espazioan daudenean, soilik %8k egiten du euskaraz eta horietatik denak dira neskek, gainera, horietatik %50ak euskara dauka ama-hizkuntza.

2. Grafikoa: Hizkuntzaren erabilera berdinen arteko harremanetan 4 urte.




Iturria: egileak sortua

b) Irakaslearekin dituen harremanetan

Irakaslearekin dituzten harremanetan, euskararen erabilera gora egiten duela aurreikusi dezakegu. Talde txikian %72ak euskaraz egiten du eta horietatik erdia neskak dira. %72 horietatik %61ak euskara dauka ama-hizkuntza bezala. Talde handian daudenean, %88ak euskara erabiltzen dute, %40 neskak dira eta %54k dute euskara ama-hizkuntza. Kanpoan daudenean, %84 irakasleari euskaraz zuzentzen zaio eta horietatik %42 neskak dira. Ama-hizkuntzari dagokionez, euskara dute %57ak.

3. Grafikoa: Hizkuntzaren erabilera irakasleekin dituzten harremanetan 4 urte.



Iturria: egileak sortua

5.1.3. Hizkuntzaren erabilera 5 urte


a) Berdinen arteko harremanetan

5 urteko umeen artean berdinen artean erabiltzen duten hizkuntzari erreparatzen badiogu, 3 urtekoekin eta 4 urtekoekin ezberdintasunak daudela ikusi dezakegu. Beraien artean daudenean, talde txikian, %33k euskaraz egiten dute. Horietatik %80 neskak dira eta horietatik, ama hizkuntza euskara %80ak du.

Talde handian daudenean aldiz, %26ak hitz egiten du euskaraz. Horietatik guztiak neskak dira eta ama hizkuntza %75ak euskara dauka.

Kanpo espazioan, beraien artean %26 euskaraz mintzatzen da. %75 neskak dira eta ama hizkuntza euskara %75ak dauka baita ere.

4. Grafikoa: Hizkuntzaren erabilera berdinen arteko harremanetan 5 urte.




Iturria: egileak sortua

b) Irakaslearekin dituen harremanetan

Aurreko kasuetan gertatu den bezala, irakaslearekin dituzten harremanetan euskararen erabilera gora egiten duela ikusi daiteke. Talde txikian daudenean 5 urtekoen %93k egiten du euskaraz. Horietatik %57 neska dira eta % 64ak du euskara ama-hizkuntza bezala. Talde handian daudenean eta kanpo espazioan daudenean emaitzak berdinak direla jaso dugu.

5. Grafikoa: Hizkuntzaren erabilera irakaslearekin dituzten harremanetan 5 urte.



Iturria: egileak sortua

5.2. ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Atal honetan elkarrizketaren bitartez jaso dugun informazioa aurkeztuko dugu. Emaitzak antolatzeko informazioaren analisiaren atalean azaldu dugun kategoria-sistema erabiliko dugu.

5.2.1. Euskararen erabilerari dagokionez

Egin ditugun elkarrizketetan, euskararen erabilera aldatu dela esan digute. Lehen orain baino gehiago erabiltzen zela adierazi digu irakasle batek, batez ere Lehen Hezkuntzan.

Gaur egun gainera gertatzen da baita zuri ere gerturatzen zaizkizu erderaz. Lehen hori ez zitzaien okurrizten.

Beste irakasle batek horrek fluktuatzen duela esan zigun:

Niretzat horrek fluktuatu egiten du asko. Ez daiteke esan nolakoa den, zeren nolakoa izan daiteke, aurten talde batekin edo beste batekin aldatzen joaten da.

Prozesu progresiboa dela ere aipatu digute, hasieran haurrak ezer jakin gabe hasten baitira eta ondoren ikasten joaten diren heinean gehiago erabiltzen joaten direlako. Hala eta guztiz ere, euskara ikastetxean bakarrik erabiltzen den hizkuntza dela aipatu digute, gela barruan kanpoan baino askoz gehiago erabiltzen baita. Horregatik, batzuetan batzuentzat eskolara mugatzen dira euskararekin dituzten esperientziak, gurasoek ez dutenez euskara etxean erabiltzen, gaztelaniaz hitz egiten dute.

Lotura emozionala ere aipatu digute eta horrek zerikusia duela euskararen erabilerarekin ere azaldu digute. Esate baterako, irakasleen arabera, haurra eta irakaslearen artean dagoen harremanak markatuko du beraiekin erabiliko duten hizkuntza.

Normalean tutorearekin lotura emozional hori izaten da estuagoa, orduan, tutorearengana normalean beti euskaraz zuzentzen dira eta lotura hori estuagoa delako.

Lotura emozionalarekin zerikusia izan dezake lidergoak gelan duen papera, batzuetan liderrak erabiltzen duen hizkuntzaren arabera, gela erdaldunagoa edo euskaldunagoa izaten baita:

Ba oso desberdina ama hizkuntza duten edo ez dutenen artean batetik, eta bestetik, eragin zuzena dauka baita ere lidergoa momentu horretan nork daraman.

5.2.2. Erabilera jaistearren arrazoiak

Euskararen erabilerak behera egin duela argi dute elkarrizketatutako irakasleek, eta horretan ados daude bai Iñigo Aritza ikastolako irakasleak zein Arizmendi ikastolakoak. Eta horren arrazoiak desberdinak direla esan digute. Alde batetik, familiek eragin handia dutela esan digute. Gurasoak erlaxatuagoak daudela aipatu digute:

Nahiz eta lehen familiak askoz gehiago inpliketzen ziren. Prest zeuden edozein gauza egiteko. Askoz gehiago ez dizut esango zeren beharbada orain ere inplikatu egiten dira baina inplikazio maila desberdina da". "Baina nik uste, lehen beste bizitzeko beste modu bat zegoen, euskaraz bizitzeko beste modu bat. Konprometituago. Erlaxatuago daude eta agian euskara beste maila batean uzten dugu.

Gainera gurasoen arteko harremanak erdaraz izaten direla esan digute eta nahiz eta euskaraz jakin erdaraz egiten dute.

Hau guztia inguruarekin harremanetan egon daiteke, gizartea aldatu egin da eta gizartearekin batera hizkuntzarekin dugun harremana, beraz irakasle hauen arabera, gizarteak ere zerikusi handia izan du euskararen erabilerak izan duen beherakadan:

Gizartearen bilakaeraren eragina izan daiteke horren ondorioz garrantzitsuena, azkenean haurrak gizartearen isla dira.

Gainera kontuan hartu behar dugu ere euskararen erabilerarako hautu kontzientea egin behar dela, hau da, bakoitzaren erabakia dela euskaraz edo erdaraz hitz egitea. Eta Haur Hezkuntzako gela batean ezinezkoa litzateke hori, oraindik gaitasunik ez dute eta:

Nik uste dut hor lanik handiena helduengan dagoela. Guregan. Bai irakasle eta kanpoan. Inguruan, familian....

Euskararen akademizazio prozesua ez dute alde batera uzten, orain euskara ikasteko hizkuntza bezala ikusten baitute batzuk:

Nolabait ere eman da euskararen akademizazio prozesu bat. Lotzen da euskara irakaste eta ikaste prozesuarekin eta ez dugu benetan aldarrikatzen garai batean ikastoleatik, sorreretatik aldarrikatzen zutena.

Denbora falta ere aipatzen dute euskararen erabileraren gutxitzearen ondorio bezala, izan ere, lehen denbora gehiago eskaintzen zitzaion euskararen irakaspenari, orain irakasteko modua aldatu denez, hurrek ez dute lehen zuten eredia.

Denboraren banaketan esan dudak bezala, lehen irakasleen feedbacka momenturo zegoen eta horregatik da garrantzitsua interakzioa.

Ni oroitzen naiz hasiera batean euskara lantzen genuenean edo ipuinak lantzen genituenean, ba, denbora eskaintzen nion. Eta uste dut euskara gramatikari demagun, esaldiak, hiztegia... eta guzti hori. Gaur egun, ez dago denborarik.

5.2.3. Neska eta mutilen arteko desberdintasunak

Behaketetan ikusi dugunarekin bat etorriz, neska eta mutilen arteko desberdintasunak daudela aipatu digute batzuk. Erabilerari dagokionez neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute euskara eta talde mistoetan elkartzeko direnean, hau da, neskek eta mutilek batera daudenean normalean erdarara pasatzen dira zuzenean.

Baina hori baino gehiago, irakasle batek esan digu, 5 urtetan ematen diren prozesu psikologikoen eragina dutela horretan:

Eta bueno bost urtekoen gelan, bost urtetan hasten da morala garatzen edo lehenengo nerabezaro hori izaten da. Arauen kontra jotzeko jarrera hori baita ere. Zuk esaten duzu baietz ba nik esaten dut ezetz eta ea noraino iristen garen. Orduan psikologikoki ere ematen dira beste prozesu batzuk.

5.2.4. Zailtasunak etorkizunean

Elkarrizketatuen arabera Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzean behar-beharrezkoa da zenbait gaitasun menderatzea, ondoren, irakurketa eta idazketa prozesuetan aurrerapenak egin ahal izateko. Esaten dutenaren arabera, batzuk oso maila

baxua dute eta horren arrazoa, etxean bultzadarik ez izatea izan daiteke. Badira berezko zailtasunak dituzten batzuk baina, gehienetan gaztelaniaz hitz egiten dutenean erosoago sentitzen dira. Hala eta guztiz ere, ulermenean ez dituzte zailtasunak topatzen, gehien bat izaten da ahozkotasunean, jarioa falta zaiela esan digute, hau da, hiztegia:

Ez ulermen mailan ez. Gehiago nabaritzen da ahozkotasunean. Ulertzen dute, ulermen maila eskuratzen dute errazago ahozkotasuna gabe. Jario hori praktikatu behar dute.

5.2.5. Marko pedagogiko berria eta euskara

Marko pedagogiko berria euskararekin harremanetan jartzen badugu, hau da, irakasleei euskararen gutxitzearen arrazoi bat bezala ikusten duten galdetzean, zalantza agertzen dute denek. Alde batetik, esan digute aukera ematen duela familia ikastolako zereginetan gehiago inplikatzeko eta gainera irakasleak behar bezalako estrategiak erabiltzen baditu lagungarria ere izan daitekeela aipatu dute. Baina beste alde batetik, traba ere izan daiteke, haurrek ez dutelako lehen zuten eredia euskara entzun ahal izateko eta ereduak izateko:

Batez ere, haurrak imitazioaren bidez ikasten dute eta imitazio patroiak egokiak izan behar dira beraientzat.

Hala eta guztiz ere, zerbaiten beharra ikusten dute Iñigo Aritzako irakasleek batzuetan galduta sentitzen direla esan digutelako, nola jokatu ez dakitela:

Haurrak dinamika berri honetan sartzen direnez, noraino sar daiteke irakaslea? Ez dakit etikoa den ez den etikoa, baina lehentasuna non dago?

Esan beharra dago, estrategien aldaketa eman dela marko pedagogiko berriarekin, hasiera batean beste batzuk erabiltzen zituzten baina esan digutenaren arabera, batzuk marko pedagogiko berrian ere izan dezakete bere lekua.

Esan dugun bezala, zalantzazkoa izan da marko pedagogikoak euskararen eragina izan duen ala ez baina, Arizmendi Ikastolako irakasleak esan digunez, Konfiantzaren Pedagogiak gaztelania ikastolara sartu du. Hau da, garai batean haurrek ez zuten parte hartzen gurasoen bileretan, orain aldiz, bilera horietan parte hartzen dute eta gurasoek euskara ez badakite irakaslearekin erdaraz hitz egiten ikusten dituzte:

Horrek ekarri duena izan da umeei irakaslea eta familiaren arteko harremanak ikusten dituztela eta hauek batzuetan gaztelaniaz izaten dira.

5.2.6. Irakaslearen rola

Esan digutenaren arabera, irakasleak formakuntza behar du haurrak gaztelaniaz entzuten dituen nola jokatu jakin ahal izateko:

Karrerak ematen du ematen duena baina ez du formatzen.

Gehienetan inprobisatzen dutela esan digute irakasleek, egoera eta momentuaren arabera esku-hartzen dute eta ahal den guztia erabiltzen dute, batzuetan gomendatzen ez diren jarrerak hartuz. Adibidez, polizi lana egitearena:

*Baina badira momentuak gainezka zaudela eta esaten duzula: "Benga euskaraz!"
Poliziarena ba, poliziarena.*

Hala ere, jarrera mota hauek neketsuak direla aipatu digute ere. Beraz, garrantzitsuena hemen irakasleak jasotzen duen formazioa izango litzateke.

5.2.7. Irakaslearen estrategiak

Irakasle horiek argi dute estrategiak behar beharrezkoak direla aldaketa emateko. Gainera haurraren iritsi behar dira, haurra fortzatu gabe:

Nik uste horretan dagoela gakoa. Eta erabiltzen duzun estrategia ume bakoitzari pertsonalizatua izan behar da.

Oso garrantzitsua da motibazioarekin jolastea, haurra esku-hartzearen protagonista bihurtuz, ingurunea aprobetxatuz, estrategiak familietara eramanez... Motibazio hori ere aldatu egin daiteke haur batetik bestera, esan dutenaren arabera, bakoitzari pertsonalizatua egon beharko litzateke.

Baina batez ere, garrantzitsuena da zeharka interbenitzea eta hitz egiteko aukera ematea. Hau da, jolasean daudenean beraiei gerturatu eta elkarrizketetan eragitea:

Erdaraz entzutean garrantzitsua da ez kulpabilizatzea inor eta zuzenean interbenitu, galderak egin, zertan ari zarete? Ze joko da hau? eta horrelakoak. Orduan, galderen bitartez pasatzen dira zuzenean.

Euskara sustatzeko ekintza puntualak erabiltzen dituzte batzuk, zaila izaten dela aipatu dute baina beraien artean euskaraz egin dezaten estrategiak bideratzea beharrezkoa ikusten dute. Horretarako, inguruan gertatzen diren festa edo ospakizunak erabiltzen dituzte: Korrika, Nafarroa Oinez, Argitxo...

Ekintza puntualez gain, irakasle batek esan digu berak Pentazitate Proiektua erabiltzen duela euskara sustatzeko:

Adibidez, pauten artean jartzen genuen euskaraz aritzea. Eta horretarako bagenuen gure sistemaren kontrolaketa eramateko taldeetan jartzen zirenean. Bazegoen behatzaile bat, behatzaile horren lana zen jarrita genituen pauta horiek behatzea eta nolabait ere taldean. Eta bukaeran berak erregistro bat egiten zuen eta gero erregistro hori irakurtzen genuen eta balorazio bat egiten genuen. Auto-ebaluaketa bat baina txikiak zirenez gurekin, irakaslearekin.

5.2.8. Euskararen sustapenerako formakuntzak

Guztien arabera beharrezkoak dira euskara sustatzeko formakuntzak:

Irakasleak formatu behar dira eta formatzen dira horretan. Etengabe, nik uste horretan dagoela gakoa.

Hala eta guztiz ere, irakasleak ez dituzte zuzenean jasotzen, euskara batzordetik jasotzen dituzte.

Egia esanda nik zuzenean ez. Nik euskara batzordearen bitartez bai. Baina ikastolan badago. Ikastolan hori egon beharra dago eta esaten dizut, euskara batzordeak formakuntzak jaso ditu eta hori guri transmititu digute.

Hauek ikasturtean zehar kanpainak antolatzen dituzte eta ikastolako kideek parte hartzen dute.

5.2.9. Euskararekin atxikimendua sortu

Euskararekin atxikimendua sortzeko oso garrantzitsua da helduak haurrarekin enpatizatzea, hau da, kontuan hartzea haurrak ez duela erdaraz egiten helduaren kontra joateko baizik eta, erosoago sentitzen denez, erdarara jotzen du. Haurraren lekuan jartzea garrantzitsua da:

Batez ere enpatiaren bidez saiatu behar gara. Haurren lekuan jarri behar gara. Adibidez, hasieran egunerokotasuneko hiztegia irakatsiz edo eskainiz. Horrek haurra motibatu egingo du.

Batez ere, maila baxuetatik hasita hasi behar gara aldatzen eta estrategiak erabiliz, ondoren beste maila batzuetara iristen direnean haurrek ez dute euskara gorrotatuko:

Irakasleak estrategiak erabili behar ditu, bai. Baina irakaslea bidelaguna izan behar da, haurra motibatu eta DBHra iristen denean haurrak euskara ez gorrotatzeko estrategiak erabili beharko ditu.

Bizipen positiboak luzatu behar dizkiogu haurrari hori garatu ahal izateko. Baina beti kontuan hartuz ikastola osoa dela euskara sustatzeko eremua eta ez direla txoko bereziak sortu behar honen sustapenerako:

Euskararen eremua ikastola osoa da, barruko espazioa, kanpokoia, jolastokia... dena da euskararen txokoa, orduan ez du zentzurik horretarako bakarrik eremu bat sortzea.

5.2.10. Familien inplikazioa

Beste atal batean ere aipatu da irakasle guztiek koinziditzen dutela gizartea aldatu dela, eta horrekin batera gurasoek euskara bizitzeko duten modua. Irakasle baten ustez, guraso eta haurren arteko transmisioa zuzena izan behar da:

Gu inplikatu gaitzke, egin dezakegu nahi duguna, baina gurasoak atzetik ez badaude....

Gurasoak prozesuan ikastolarekin inplikatu behar dira, batzuk diote erlaxatuagoak daudela eta euskaraz jakin arren, beraien arteko harremanak gaztelaniaz direla.

Horregatik esaten dute euskara bizitzeko modua aldatu dela, bigarren maila batean utzi dute eta lehen euskararen aldeko borroka handiagoa zela. Eroso daudenez horrela guraso batzuk egoera honekin aurrera egiten dutela.

Bai oso desberdina zen. Baina nik uste, lehen beste bizitzeko beste modu bat zegoen, euskaraz bizitzeko beste modu bat. Konprometituago. Erlaxatuago daude eta agian euskara beste maila batean uzten dugu.

Gainera, prozesuan gurasoak inplikatu behar dira. Arizmendi ikastolan esan digutenez, bertako gurasoak kezkatuta agertu dira euskararen egoerari dagokionez eta zenbait jarduera prestatzen hasi dira horretan esku-hartzeko.

Badira guraso batzuk, normalean euskaldunak izan dira, kezkatutak etorri direla egoera horri buruz. Lanean hasi dira eta jolasak eta horrelakoak antolatzen dituzte. Eta gure aldetik, 19/20 kurtsorako sentsibilizazio saioak egingo ditugu horretarako.

5.2.11. Ikastetxe bakoitzaren plana

Zenbait puntu komunean egon daitezke, baina bakoitzak bere plana sortu beharko lukeela esan digute:

Bakoitzak berea egin beharko luke. Baina izan daiteke marko orokorra, adibidez, guk egiten duguna, euskara lehenestearena: bilerak euskaraz egitea. Eta noski familiekin landu behar da, ikastolak euskalduntze prozesuan betebehar batzuk dituela azaldu behar zaie.

6. ONDORIOAK

Aurreko atalean azaldutako emaitzak kontuan hartzen baditugu hainbat ondorioetara iritsi gaitzke. Geletan egindako behaketak begiratzen baditugu eta datu orokorrak aztertzen baditugu, euskararen erabilera urria dela esan daiteke. Hala ere, Haur Hezkuntzan dauden bitarten, adinaka hartzen baditugu, ikusi dezakegu nola adinarekin erabilerak gora egiten duen. Honen arrazoia izan daiteke ikastolara sartzen direnean ez dutela oraindik hizkuntza behar bezala garatu. Gainera, haur askok ama-hizkuntza gaztelania dutenez euskara jakin gabe etortzen dira geletara, behaketetan ama-hizkuntzaren eragina zein den ikusteko aukera izan dugu eta. Ikustekoa da, euskaraz hitz egiten dutenen %50 baino gehiagok ama-hizkuntza euskara dutela, beraz, eragina nabaria da.

Baina, ez da bakarrik ama-hizkuntza kontua, elkarrizketa batzuetan komentatu digute zenbait haur euskaldun ikastolan hasten direnean eralduntzen direla, hau da, gaztelania gutxi jakinda etortzen dira ikastolara eta beste haur batzuk kutsatuta gaztelania ikasten dute.

Lehen Hezkuntzan, Haur Hezkuntzan baino gutxiago erabiltzen dela aipatu digute elkarrizketetan, beraz, esan daiteke hurrek bizitzen dituzten prozesu kognitiboek eragin zuzena dutela euskararen erabileran.

Horretaz aparte, irakaslearekin beraien artean baino gehiago erabiltzen dute euskara, beraz, haurra eta irakaslearen arteko harremanak ere euskararen erabileran zerikusia duela ondoriozta dezakegu, hau da, geroz eta harreman estuagoa, orduan eta erabilera ugariagoa. Horrez gain, behaketen bidez ikusi ahal izan dugu nola neskek mutilek baino gehiago erabiltzen duten euskara. Horren arrazoia zein den argi ez dakigula esan beharra dago baina datuetan nabarmen ikusten da neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dutela euskara.

Baina argi dagoena da, gizarteak eragiten duela haurren arteko harremanak erdaraz izatea. Izan ere, haurrentzako eredu gurasoak dira. Beraz, helduek egiten dutena imitatzen dute. Orduan, nahiz eta helduek hurrekin euskaraz hitz egin, beraien arteko harremanak erdaraz badira, nekez lortuko dugu haurren euskalduntzea. Imitazioa da hurrek egiten duten jardura nagusia, ondorioz, eredu egokiak eskaini behar zaizkie, euskaldunak direnak.

Marko pedagogiko berriak ez dakigu zuzenean eragiten dion euskararen erabilpenaren gutxitzeari, baina zeharka eragin diezaiokeela esan digute. Ez da euskararen gutxitzearen arrazoi bat, baina argi dago oraingo egoerari ez diola laguntzen, hau da, ez duela sustatzen. Alde batetik, espazioen irekierarekin gaztelania sartu da ikastetxeetara, gurasoen eta irakasleen harremanak batzuetan erdaraz dira eta hurrek hau ikustean jarrera horiek imitatuz hitz egiten dute. Beste alde batetik, denbora aldatu da. Lehen ordu guztiak gidatuak ziren, beraz, momentu oro zegoen irakaslearekiko feedbacka. Orain aldiz, zirkulazio librean ematen dutenez hurrek ia egun osoa, zaila da lehen zegoen interakzio hori izatea.

Horregatik, marko pedagogiko berriaren barruan irakasleak paper garrantzitsua hartzen du. Euskararen erabilera urria izateak zailtasunak ekar ditzakeelako etorkizunean. Haur batzuk nahiz eta ulermenean arazorik ez izan, nahiz eta euskara arazorik gabe ulertu, ez dira gai hitz egiteko. Ahozotasuna falta zaie, jarria. Hori dela eta, irakasleek estrategiak erabili beharko dituzte haurrentzat eredu egokia izateko eta hizkuntza behar bezala bereganatzeko. Marko pedagogiko berriaren barnean enkajatzten duten estrategiak bilatu beharko ditugu. Zeregin horretan familia inplikatzeko ezinbestekoa izango da, hori baita marko pedagogiko berriaren aldaketetako bat. Familia eta euskararen arteko harremana aldatzen saiatu behar gara, familiei erakutsi behar zaie beraiek direla haurren eredu eta beraiek ez badute euskalduntze prozesu honetan parte hartzen, nekez lortuko dugula hori gure hurrekin.

Horretaz aparte, haurra jarri behar dugu prozesu guztiaren erdigunean, haurra da protagonista. Horregatik, irakasleak motibagarriak diren estrategiak erabili beharko ditu, material ezberdinak eskainiz, zuzenean eraginez, beraien elkarrizketetan sartuz... baina batez ere, aukerak eman beharko dizkiegu hurrei hitz egin dezaten eta euskara jarria praktikatzen dezaten.

Irakasleek beraien estrategiekin euskararen atxikimendua sortzea lortu beharko lukete. Haurrek euskararekin konfiantza izatea lortu beharko dute, horrela etorkizunean euskararekin beste harreman positiboago bat izateko eta euskara ez gorrotatzeko.

Kontuan hartzekoa da haurraren lekuan jartzen jakin beharko dugula, izan ere, haurrak ez du gazteleraz egingo gure kontra joateko baizik eta erosoago sentitzen delako egingo du. Beraz, euskararekin atxikimendua sortzeko, lehen esan dugun bezala estrategiak behar beharrezkoak izango dira, maila baxuetan hasten direnak eta gutxika ikastola osoa hartuko dutenak.

Horrekin ez dugu esan nahi ikastolan euskara sustatzeko espazio berriak sortu behar direnik. Euskararen eremua ikastetxe osoa da eta ez bakarrik sortu dezakegun eremu bat.

Hori guztia dela eta, irakasleek jasotzen dituzten formakuntzak garrantzi handia izango dute. Eta nire ustez irakasleek zuzenean jaso beharreko zerbait izan beharko litzateke. Ikastetxe guztietako irakasleek jaso beharrekoa.

Gainera, ikastetxe bakoitzak izan beharko luke egoera honi aurre egiteko plana. Euskara sustatzeko plan berezia egon beharko litzateke ikastetxe guztietan, bakoitzak dituen beharretara egokitua. Hala ere, ez legoke gaizki zerbait komunean izango balute, adibidez, Arizmendi Ikastolan egiten dutena, bilera guztiak euskaraz izatea.

Hau guztiagatik, eta amaitzeko esango genuke, euskara sustatzeko estrategiak behar beharrezkoak direla eta Konfiantzaren Pedagogia aprobetxatuz hori lortu daitekeela. Zailtasunak izan arren, testuinguru egokia eskaintzen du haurrak euskararekiko atxikimendua eraiki dezaten.

7. PROPOSAMENA

Ondorioekin argi utzi duguna da haurren arteko harremanak gehienetan ez direla euskaraz izaten. Euskararen erabileraren gutxitzearen arrazoiak anitzak dira eta oso zaila da eragile guztiei aurre egiteko proposamen egokia sortzea. Gure aldetik hainbat proposamen luzatzen ditugu haurren arteko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzan eragin ahal izateko eta aldi berean, euskararekiko konfiantza lortu dezaten, besteak beste:

- a) Irakasleek euskara sustatzeko estrategiak erabiltzea.
- b) Dauden espazioak aprobetxatzea: Idazketa txokoa, ipuinak, marrazketa txokoa...

7.1. IRAKASLEEK EUSKARA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK ERABILTZEA

Gure azterketarekin atera dugun ondorio garrantzitsu bat da irakasleek euskararen erabilera sustatzeko ezinbestekoa dela horretan formatzea. Hori dela eta, hemen agertzen

diren proposamenetan irakaslearen formakuntza praktikaren azterketatik abiatuko dena izango da.

7.1.1. Irakasleen formakuntza

Irakasleentzako formakuntza saioak antolatu behar dira. Horretarako irakasle bakoitzari formakuntzara etorri baino lehen bere klasearen tarte bat bideoz edo audioz grabatzeko eskatuko zaio eta traskribatuta ekartzeko. Ondoren, Ruiz Bikandik eta Toughek (1979) azaldutako estrategiak azalduko zaizkie irakasleei: Zeintzuk dauden, zertarako erabiltzen diren... Adibidez, Orientazio estrategiak daudela azalduko diegu eta gai baten inguruan modu zehatz batean hausnarketa egitera bultzatzen duten galderak direla esango diegu, esate baterako: *Zer ari da gertatzen hemen? Zergatik uste duzu makilak jarri behar dizkiogula?* Eta gauza bera egingo genuke errazteko estrategiekin, informazio estrategiekin, euskarri estrategiekin eta bukaera estrategiekin.

Behin irakasleei zein estrategia dauden eta zertarako erabiltzen diren azaldu eta gero, bakoitzari bere bideoaren transkribapena hartzeko esango diegu. Bertan bakoitzak erabiltzen dituen estrategiak identifikatu beharko ditu eta erabilerari buruz hausnartu beharko du.

- HELBURUAK: Haurrak euskaraz hitz egiteko estrategiak ikastea, beraien arteko harremanetan eragitea eta euskararekiko atxikimendua lortzen laguntzea.
- MATERIALA: Hizkuntza, bideoa, arkatza, borragoma.
- IRAUPENA: Formakuntza saio bat, hiru hilabetero. (Horrela jarraipena egiteko aukera egongo da, prozesua ikusiteko aukera izango dute, bai beraien erabiltzen duten estrategiak aldatu diren ikusteko eta bai hurrek aurrerapenak egin dituzten ikusteko).

7.1.2. Talde elkarrizketa sustatzea

Mercerren (2001) ustez, hurrek elkarrizketa modu egokian gauzatu ahal izateko ezagutzen dituzten hitzetatik abiatu behar gara ondoren, berriak ikasteko. Gainera, taldean ematen bada elkarrizketa hizkuntza sustatzeko eta talde hausnarketa bultzatzeko baliagarria izan daiteke.

Marko pedagogiko berrian talde elkarrizketak bere lekua izan lezake, izan ere, irakaslea bigarren plano batean utziko luke, hau da, irakasleak gidatuko lituzke elkarrizketa saioak baina bigarren plano batean egongo litzateke. Adibidez, umeei egunerokotasunean sortzen diren arazoak konpontzeko egunean tarte bat eskaintzea izango litzateke, arazoak guztien artean konpondu ditzaten. Adibidez, eraikuntza espazioan taldetxo baten artean eztabaida bat sortu daiteke dorre bat eraikitzeke ez direlako ados jartzen nola hasi daitezkeen. Arazo horri irtenbidea bilatzeko guztion artean egin dezakegun zerbait izan daiteke, hau da, egunaren amaieran gela osoa bildu eta beraien arazoa aurkeztu, ondoren guztion artean konpontzeko.

Esan dugun bezala praktika hau irakasleak gidatu beharko luke. Berak haur guztien parte hartzea, orientazioa eskaini, hausnartzera eramango ditu...

Hala ere, hau guztia aurrera eraman ahal izateko, haurrek argi izan behar dituzten arau batzuk jarri beharko dira, adibidez:

- Gure ideiak taldean azalduko ditugu eta gure lagunak entzungo ditugu.
- Banan-banan hitz egingo dugu.
- Iritziak errespetatuko ditugu.
- Ados ez banago, zergatik ez nagoen ados esango dut.
- Akordio batera iristen saiatu behar gara.

Kontuan hartu behar da talde elkarrizketak egiten diren lehenengo saioetan arauak errepikatu beharko ditugula haurrak barneratu ditzaten.

- HELBURUAK: Euskaraz hitz egiteko aukerak ematea, aurrak euskaraz hitz egiteko estrategiak ikastea, beraien arteko harremanetan eragitea eta euskararekiko atxikimendua lortzen laguntzea.

- MATERIALA: Hizkuntza.

- IRAUPENA: Ikasturte osoa.

7.2. DAUDEN ESPAZIOAK APROBETXATZEA

Ikerlan honetan atera dugun beste ondorio bat izan da ez ditugula euskara lantzeko txoko bereziak sortu behar. Horren ondorioz, gure ikastolako txokoak aprobetxatzea erabaki dugu euskara indartzeko. Argi dago ikastola osoa dela euskara txokoa, baina aldi berean, umeei hitz egiteko aukera eman behar zaie. Beraz, gure porposamenak ditugun espazioak aprobetxatuz, haurrari mintzatzeko aukera ematearen ildotik abiatuko dira.

7.2.1. Idazketa txokoa

Haurrek beraien testuinguruarekin lotura duten hitzak eta irudiak izango dituzte. Hauek ereduak izango dira beraiak ikus ditzaten eta ondoren paperean kopia ditzaten. Behin kopia ditzutenean gurasoen txokoa jarriko dira ikusgai haurrek beraien guraso edo familiari erakutsi ahal izateko. Horrela, euskaraz ez dakiten familiek haurrek ikasten dituzten hitzak ikasi ahal izango dituzte.

- HELBURUAK: Euskara jarria areagotzea eta hiztegia bereganatzea; Euskara ikasteko haurrak motibatzea; Familiak inplikatzeko.

- MATERIALA: Beraien testuinguruari lotutako hitzak eta irudiak euskaraz, koloreetako paperak, koloreetako errotulagailuak, arkatzak, pegatinak...

- IRAUPENA: Ikasturte osoa.

7.2.2. Marrazketa txokoa

Haurrek marrazketa txokoan marrazkiak egingo dituzte. Marrazten dauden bitartean irakaslea gertu egongo da eta beraiekin hitz egiteko aukera izango du. Behin bukatu dutenean gelako paretan jarriko dituzte eta irakasleak galderak egingo dizkie. Adib. Zer da? Nola egin duzu? Zein kolore erabili dituzu?... Gero gurasoak ikastolara sartzen direnean marrazkiak ikusteko aukera izango dute eta haurrek erakutsiko dizkiete beraiei zer egin duten azalduz, zergatik egin duten...

Horretarako irakasleak material bereziak erabili ditzake, argazkiak, ikasleek ekarritako gauzak, patioan aurkitzen dituzten zomorroak... Ikasleei hauek marrazteko eskatuko diegu eta bakoitzak berea marraztuko duenez, aukera emango digu horri buruz hitz egiteko, eta hizkuntza erabiltzeko.

- HELBURUAK: Haurrari euskaraz hitz egiteko aukera ematea; Euskararekiko atxikimendu egokia sortzen laguntzea; Haurrak motibatzea.

- MATERIALA: Papera, Kartulina, Koloreetako margoak, errotulagailuak, gometxak, arkatzak, borragoma, testuinguratuak dauden materialak (adib. udazkenean hostoak)...

- IRAUPENA: Ikasturte osoa.

7.2.3. Ipuin bidaiaria

Haurrei ipuin desberdinak erakutsiko zaizkie. Horietako bat aukeratu beharko dute eta gelan irakasleak kontatuko du. Horren ondoren ipuinaren arduradunak etxera eramango du eta ipuina gurasoekin irakurriko du etxean. Etxean argazki bat atera beharko du irakurri duen pertsonarekin eta ikastolara bueltatzen denean bere ikaskideei erakutsiko die ipuina. Horrez gain, norekin irakurri duen, gustatu zaion, zein pertsonai gustatu zaion gehiago... esan beharko du. Argazki guztiak familien txokoan jarriko dira ikastola osoak ikusi ahal izateko.

- HELBURUAK: Haurrari euskaraz hitz egiteko aukera ematea, Euskararekiko atxikimendu egokia sortzen laguntzea; Haurrak motibatzea eta familiak inplikatzeko.

- MATERIALA: Ipuin desberdinak.

- IRAUPENA: Astean behin, Ikasturte osoa.

7.2.4. Gure altxorrek ikastolara

Astelehenetan, goizean, etxean asteburu osoa igaro eta gero haurrak gauza asko izango dituzte kontatzeko eta aukera hori aprobetxatu daiteke euskaraz hitz egiteko aukera emateko. Frutaren arduraduna jartzen den bezala, altxorraren arduraduna jarri daiteke eta astelehenetan arduradun horrek etxetik gustoko duen zerbait ekarri beharko du guztioi zer den, zergatik den berarentzat garrantzitsua, zer egiten duen berarekin... Astelehenetan egitearen arrazoia, asteburuan normalean astean zehar baino gauza gehiago egiten dituztenez, kontatzeko zerbait ekarri dezaketela da.

Azaldu eta gero, gelako txoko batean jarri dezakegu gainontzeko ikasleek ikus dezaten. Eta horrela zirkulazio librean daudenean adin desberdinetako haurrek horri buruz galderak egiteko aukera izango dute, eta gainontzekoek erantzuteko aukera izango dute.

- HELBURUAK: Haurrari euskaraz hitz egiteko aukera ematea; Euskararekiko atxikimendu egikia sortzen laguntzea eta haurrak motibatzea.

- MATERIALA: Hizkuntza eta haurrak ekartzen duen materiala.

- IRAUPENA: Ikasturte osoa.

8. BIBLIOGRAFIA

- Antero, A. (2015) *Konfiantzaren Pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa*. Arrasate: Ikastolen Elkartea.

- Antero, A. (2016). Konfiantzaren pedagogia: Norberarekin, besteekin eta inguruarekin harremanetan. *Hik Hasi*, 209, 17-22.

- Ausbel, D.; Novak, J. eta Henesian, H. (1978). *Educational Psychology: A cognitive View (2ª ed)*. New York: Holt, Rineheart & Wiston.

- Buber, M. (2002). *Yo y tu*. Nueva Vision: Argentina.

- Cristobal, R. (2011). *El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza*. Valladolid: La infancia.

- Fernandez-Dominguez, M. (2005). Más allá de la educación emocional: La formación para el crecimiento y desarrollo personal del profesorado. PRH como modelo de referencia. In *Revista interuniversitaria de formación de profesorado*, 19(3), 195-251.

- Gerver, R. (2015). Konfiantza, zaindu beharreko balio hori. *Hik Hasi*, 209. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20151201/203-konfiantza-zaindu-beharreko-balio-hori>

- Hik Hasi. (2018). *Aho-hizkuntza Haurretan. Haurra hitzaren jabe*. Webgune honetatik berreskuratua: http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20181221/Aho-hizkuntza_haurretan._Haurra_hitzaren_jabe

- Igartua, I. Zabaltza, X. (2012). *Euskararen historia laburra*. Donostia: Etxepare institutua.

- Jorba, J., Gómez, I., eta Prat, À. (Eds.). (2000). Habilidades cognitivolingüísticas y tipología textual. In J. Jorba, I. Gómez, & À. Prat, (Eds.). *Hablar y escribir para aprender: Uso de la lengua en situación de enseñanza-aprendizaje desde las áreas curriculares*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, Institut de Ciències de l'Educació.

- Landa, G. (2016). *Pertsona seguru sentitzean, baldintza egokiak daude bere gaitasunak garatzeko*. Webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.mondraberri.eus/mondraberri/contenidos.item.action?id=4160602&menuId=2610208>

- Manterola, I. (2010). *Euskarazko Murgilketa Haur Hezkuntzan: Euskara-Gaztelania Elebitasunaren azterketa*. Doktore tesia. Gasteiz: UPV/EHU:.
- Nafarroako Gobernua. (2007). *Euskararen egoera Sakanan*. Webgune honetatik berreskuratua: <http://sakana-mank.eus/wp-content/uploads/sites/72/2014/07/Euskararen-egoera-Sakanan.pdf>
- Mercer, N. (2001). El papel del enseñante. In N. Mercer, *Palabras y mentes*. Paidós, 202-210.
- Perez Gomez, A. eta Gimeno, J. (1992). *Comprender y transformar la enseñanza*. San Sebastian de los Reyes: Morata.
- Psikologia hiztegia. (1997) *Psikologia hiztegia: psikologia kognitiboa: euskara, espainiera, frantsesa, ingelesa*. San Sebastian: Ediciones Vascas S.A.
- Sanchez, E.; Saez del Castillo, M.;Arteaga, G.; Palomar, A.; Villar, M. (1996). *Ahozko Hizkuntzaren Sustapena Haur Hezkuntzan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Soziolinguistika Klusterra (2012). Sakanako Hizkuntza-Erabilaren Kale-Neurketa, 2011: Emaizten txostena. Webgune honetatik berreskuratua: <http://sakana-mank.eus/wp-content/uploads/sites/72/2015/02/Kale-neurketa.pdf>
- Tamayo, T. (2012). *Jean Piaget. Concepto de la inteligencia*. Blogspot. Webgune honetatik berreskuratua: <http://tesinatamayosilva.blogspot.com/2012/06/jean-piaget-concepto-de-la-inteligencia.html>
- Tough, J.. (1979). *Lenguaje, conversación y educación: El papel del maestro en el diálogo*. Madrid: Visor.

9. ERANSKINAK

A. HAURREN BEHAKETA TAULAK

A-1. BEHAKETA TAULA

EGUNA: 2019-04-03

ORDUA: 10:30/12:30

BEHATZAILEA: IRATI FLORES.

ADIN-TARTEA: HAUR HEZKUNTZA 3 URTE. (M: MUTILA/ N: NESKA)

<u>ADIN-TARTEA:</u>	BERDINEN ARTEKO HARREMANAK:						IRAKASLEAREKIN HARREMANAK:						AMA HIZKUNTZA
	<u>Talde txikian:</u>		<u>Talde handian:</u>		<u>Kanpo espazioan:</u>		<u>Talde txikian:</u>		<u>Talde handian:</u>		<u>Kanpo espazioan:</u>		
HIZKUNTZA:	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	
Ikasle 1M		X		X		X		X		X		X	EUSK.
Ikasle 2N		X		X		X		X		X		X	EUSK.

Ikasle 3M		X		X		X	Saiatze n da	X		X		X	EUSK.
Ikasle 4M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 5N		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 6N		X		X		X		X	Saiatze n da	X		X	GAZT.
Ikasle 7N		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 8M		X		X		X		X		X		X	EUSK.

Ikasle 9N		X		X		X	Saiatze n da.	X		X		X	EUSK.
Ikasle 10M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 11N		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 12M		X		X		X	X			X		X	GAZT.
Ikasle 13M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 14M		X		X		X		X		X		X	EUSK.
Ikasle 15N		X		X		X	Saiatze n da	X	Saiatze n da	X		X	GAZT.
Ikasle 16N		X		X		X	X		X		X		EUSK.

Ikasle 17N		X		X		X	X		X			X	GAZT.
Ikasle 18M		X		X		X		X		X		X	EUSK.
Ikasle 19N		X		X		X	Saiatze n da	X		X		X	GAZT.
Ikasle 20N		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 21M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 22M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 23N		X		X		X	X		X			X	GAZT.

OHARRAK:

- Batzuetan irakaslearekin saiatzen dira baina zaila egiten bazaie zuzenean gaztelerara pasatzen dira.
- Batzuetan, euskaraz ongi dakitenek euskaraz hasten dira baina gainontzekoak gazteleraz egiten dutenez zuzenean pasatzen dira, nahiz eta kostatu eta gramatikalki akatsak egin.
- Beraien arteko harremanak erderaz dira beti.

- Jolas sinbolikoan jolasten direnean, gaztelera hitzak erabiltzen dituzte: mama, papa, bebe... (Familien arabera etxean ez dituzte horrelakoak erabiltzen gurasoak deitzeko).
- Irakaslearekin talde txikian daudenean gehiago saiatzen dira.
- Gurasoetatik askok euskaraz badakite baina ez dute erabiltzen.

A-2. BEHAKETA TAULA

EGUNA: 2019-04-04

ORDUA: 10:30/12:30

BEHATZAILEA: IRATI FLORES.

ADIN-TARTEA: HAUR HEZKUNTZA 4 URTE. (M: MUTILA/ N: NESKA)

<u>ADIN-TARTEA:</u>	BERDINEN ARTEKO HARREMANAK:						IRAKASLEAREKIN HARREMANAK:						AMA HIZKUNTZA
	<u>Talde txikian:</u>		<u>Talde handian:</u>		<u>Kanpo espazioan:</u>		<u>Talde txikian:</u>		<u>Talde handian:</u>		<u>Kanpo espazioan:</u>		
HIZKUNTZA:	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	
Ikasle 1N		X		X		X	X		X		X		EUSK.

Ikasle 2N		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 3M		X		X		X		X		X		X	EUSK.
Ikasle 4M		X	Batzuet an	X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 5M		X		X		X		X	X		X		GAZT.
Ikasle 6M		X		X		X		X	X		X		GAZT.
Ikasle 7M		X	Batzuet an	X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 8M		X		X		X		X	X		X		EUSK.
Ikasle 9N	X		Batzuet an	X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 10N		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 11M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 12M		X	X			X	X		X		X		EUSK.

Ikasle 13M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 14M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 15N		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 16M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 17M		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 18M		X		X		X		X		X		X	GAZT.
Ikasle 19N	X		X		X		X		X		X		EUSK.
Ikasle 20M		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 21N		X	X		X		X		X		X		GAZT.

Ikasle 22N	X		X			X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 23N		X	Saiatze n da.	X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 24M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 25M		X		X		X		X	X			X	GAZT.

OHARRAK:

- Beraien arteko harremanak normalean beti gazteleraz izaten dira.
- Irakasleari ia beti euskaraz zuzentzen dira edo behintzat saiatzen dira.
- Ikasturte hasieratik asko hobetu dute.
- Irakasleak beraiekin ahozko aiderazpena lantzen du: jolasen bidez, aho korapiloak...
- Taldean biltzen direnean irakasleak estrukturak ematen dizkie, adib: Asteburu honetan... joan nintzen... Horrela gaitasuna ez dutenek errepikatzeko aukera dute. Ez dute denek errepikatzen, dakitenek beste estruktura batzuk erabiltzen dituzte.
- Hitza beti ematen die: Entzutea oso garrantzitsua da. Adib. Emozioak lantzeko bata besteari gauza politak esaten dizkiote.

A-3. BEHAKETA TAULA

EGUNA: 2019-04-05

ORDUA: 10:30/12:30

BEHATZAILEA: IRATI FLORES.

ADIN-TARTEA: HAUR HEZKUNTZA 5 URTE. (M: MUTILA/ N: NESKA)

ADIN-TARTEA:	BERDINEN ARTEKO HARREMANAK:						IRAKASLEAREKIN HARREMANAK:						AMA HIZKUNTZA
	Talde txikian:		Talde handian:		Kanpo espazioan:		Talde txikian:		Talde handian:		Kanpo espazioan:		
EGOERA:	Euskar a	Gaztela nia	Euskar a	Gaztela nia	Euskar a	Gaztela nia	Euskar a	Gaztela nia	Euskar a	Gaztela nia	Euskar a	Gaztela nia	
Ikasle 1N		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 2M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 3N	X		X		X		X		X		X		GAZT.
Ikasle 4N	X		X		X		X		X		X		EUSK.
Ikasle 5N		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 6M		X		X		X	X		X		X		EUSK.

Ikasle 7N	X		X		X		X		X		X		EUSK.
Ikasle 8M	X			X	X		X		X		X		EUSK.
Ikasle 9N	X		X			X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 10M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 11N		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 12M		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 13M		X		X		X	X		X		X		EUSK.
Ikasle 14N		X		X		X	X		X		X		GAZT.
Ikasle 15N		X		X		X		X		X		X	GAZT.

OHARRAK:

- Irakaslearen arabera segun zein umerekin elkartzen diren euskaraz edo gazteleraz egiten dute.
- Badira ikasle batzuk neskekin elkartzen direnean euskaraz egiten dutenak baina bestela gazteleraz egiten dute.
- Neskak beraien artean euskaraz egiten dute beraien artean baina norbait gazteleraz zuzentzen bazaie, zuzenean pasatzen dira.
- Irakaslearen oharra: Denboran zehar gehien bat neskak euskaraz egiten dute, mutilei gehiago kostatzen zaie.
- Gehienak talde txikietan daudenean gazteleraz egiten dute.
- Irakaslearen oharra: Aitak euskaraz egiten badu, harremanean nabaritzen zen garai batean. Amarekin euskaraz hitz egiten zutenek gehiago egiten zuten.
- Badira gaiarekin asko kezkatzen diren gurasoak.
- Gela honetan badago haur bat gainontzekoak gazteleraz egiteko kutsatzen dituenak. Baina badira bi neska ere, esukara kutsatzen dutenak.
- Irakaslearekin ia denek euskaraz egiten dute baina zaila iruditzen bazaie gaztelaniara pasatzen dira.

B. ELKARRIZKETEN TRANSKRIPZIOAK:

1. ELKARRIZKETA: IRAKASLE 1

Kaixo, bueno elkarrizketarekin hasiko gara. Zure ustez nolakoa da euskararen erabilera maila?

Bueno egia esanda, geroz eta gutxiago entzuten da. Dezente, gaur egun gainera gertatzen da baita zuri ere gerturatzen zaizkizu erderaz. Lehen hori ez zitzaien okurritzen. Eta lehen ere, beraiek bere kaxa hari zirenean, batzuetan erdaraz zeuden baina nahikoa zen zu ondotik gertu pasatzea, beraiek bueltatzeko. Gaur egun hori ere ez da gertatzen.

Eta horren arrazoa zein izan daitekeela uste duzu, zein susmo dituzu?

Nik uste hor arrazoi asko egongo direla. Bat bakarrik ez, uste dut familiak eragin handia izango duela. Nik uste dut gurasoak edo familiak nahiko erlaxatuak daudela alde horretan. Ez ditut oso konprometituak ikusten euskararen harremanean.

Agian beraien artean harreman erdaraz bada, beraiek ere erdaraz egingo dute?

Eta, hori da, alde batetik ikusten duzu guraso asko euskaldunak direla, ikastolan ikasitakoak. Baina nik ez dakit bikote misto dezente dauden edo ez dauden, eta nik uste dut erdarara jotzen dutela. Orduan nik uste dut, hor badagoela nun lan egin. Nik uste dut familietan bai.

Eta esan duzu, lehen haurren ondotik pasatzen zirenean, zuzenean aldaketa egiten zutela. Uste duzu marko pedagogiko berriak eragina izan dezakeela? Agian erreferentziazko pertsona ez dutenez erdarara jotzeko erraztasuna izan dezaketela?

Nik ez dakit, hau gertatzen zen marko pedagogiko aurretik ere, ez dela izan horren ondorio bat. Nik pentsatzen dut marko pedagogiko berri honek ez duela gehiegi laguntzen. Hemen zerbait asmatu behar da, hausnarketa sakon bat egin behar da, hori sustatzeko, euskararen erabilera. Azken finean, adin horietan, txiki horietan ez badute oinarri bat hartzen arazo bat izan behar da. Arazo larri bat izan behar da. Orduan hori nolabait ere, orain arte kontrolatu behar da. Bakoitzak bagenituen bere tresnak. Gure gauzak eta aparte bagenuen ikastolan edo etapan erabiltzen genituen baliabideak. Baina hori orain ikusten duzu honetan galduta bezala.

Eta irakasleak ere? Galduta?

“Klaro” irakasleak ere. Haurrak dinamika berri honetan sartzen direnez, noraino sar daiteke irakaslea? Ez dakit etikoa den ez den etikoa, baina lehentasuna non dago?

Ama hizkuntzak orduan eragina duela uste duzu?

Bai handia. Hor nabaria da, haurrak zeintzuk etxetik datozen euskara ikasia edo hitz egiten dutenek etxean eta zeintzuk ez. Maila oso desberdina dago batzuegatik besteengana.

Zuk gaztelaniaz hitz egiten dutela entzutean, hasieran zure jarrera zein izaten da?

Gaur egun, esan nahi dut, bukaera aldera, hori euskara batzordetik, beraiek jaso zuten formakuntza bat. Gero guri transmititu ziguten eta nolako interbentzioak izango ziren egokienak gure aldetik eta horrela. Eta bueno proposatzen zuten beti ere ez egotea denbora guztian “aber euskaraz, aber zu euskaraz, benga euskaraz...” Zeren azkenean zu desgastatzen zara pila bat eta ez duzu lortzen, momentuko gauzak lortzen dituzu baina gero, hor gelditzen da. Eta orduan, gauzen artean proposatzen zuten, positiboki jokatzera eta edo gu sartzea zeharka talde horretan eta euskaraz hasi eta beraiek automatikoki txipa aldatzen zuten. Orduan interbentzioak egin buelta emateko. Egon beharrean “euskaraz, euskaraz, euskaraz...” Horrelakoetan ibili gara. Egia esanda nik batzuetan bueltatu naiz nireira. Eske ez da posible, orduan erabiltzen zenuen ahal zenuen guztia. Batzuetan zen, “benga hombre mesedez” edo beste batzuetan “aber etorri pixka batean, baten-bati, ez, begira hausnartu pixka batean, badakizu hemen euskaraz egin behar dela. Benga jar zaitez hor hausnartu pixka batean eta ondoren bueltatu”. Esan nahi dut, horrelako gauzak batzuetan egin ditugula. Horrela, zenbait momentuetan inprobisatuz.

Zailtasunak nabaritzen dituzu HHTik LHra pasatzen direnean bai ulermenean edo bai hitz egiterako orduan?

Ez naiz atrebitzen edo ausartzen esatea, baina agian bai zeren noski datoz haur batzuk euskaraz ia hitz egin ez dutenak. Orduan, hori zuregana iristen direnean lehenengo mailara eta hor, hasi behar zarenean lantzen irakurketa edo idazketa eta zenbait gauzetarako maila bat behar da. Batzuk horretan petral-petral. Beti egon dira haurrak eta haurrak. Beti egon dira erraztasun gehiago zutenak eta beste batzuk zailtasun gehiago dituztenak etxetik ez zutelako bultzadarik. Berez, madurazioa oraindik ez dutelako, komatxoaren artean. Eta ama-hizkuntza batzuk ahoskatzerakoan edo hizkuntzarekin trabaren bat zutelako. Baina bueno bestela orokorrean horrela izateko eragin pixka bat baduela.

Eta zure ustez euskara sustatzeko estrategiak beharrezkoak dira?

Bai. Bestela... behar beharrezkoak dira, behar beharrezkoak. Bestela hau nola aldatu behar da? Zeren esaten duzu gu ikastolan gaude, haurra ikastolan ehuneko zenbat denbora sartzen ditu. Bueno ikastolan hainbeste ordu, bost ordu egunean. Beste dena kanpoan dago eta ez bada haur euskalduna, esan nahi dut, gurasoak ere konprometituak edo euskaldunak direnak hor gelditzen da beraien euskararekiko duten esperientzia bakarra. Zeren kanpoan da ikastolatik ateratzea eta dena da erdaraz. Altsasu batean dena da erdaraz. Gezurra dirudi, da atea pasatzea eta dena erdaraz. Orduan esaten duzu, familia, elkartea, konprometitu behar dira zeren ikastolaren esku gelditzea ez da nahikoa. Ni adibidez, konturatzen naiz, nire alabak 20 urte ditu orain, bera hizkuntza euskara, ama-hizkuntza, euskara hobekiago hitz egiten du gaur egun euskaraz erdaraz baino. Taldean, “kuadrillan” ni konturatu naiz behin baino gehiagotan denak pasatu dira ikastolatik eta oraindik zenbait momentuetan entzuten dituzu erdaraz. Eta nik uste dut hor dagoela gakoa. Hor dago.

Dakienak hitz egin behar du. Eta zuen artean, euskaldunen artean euskaraz. Hori klik egin behar dugu, zeren horri buelta eman behar zaio.

Eta uste duzu Haur Hezkuntza batean hausnarketa puntu horretara iristea zaila izan daitekeela? Kapazak ikusten dituzu haurrak hausnartzeko?

Ez, ez. Oso txikiak dira. Nik adibidez erabili izan dut hausnarketarena eta horrela baina pixka bat helduagoak direnean. Eta bai badakizu gainera zalantzan gelditzen zaigula hausnarketa egiten duten edo ez. Batzuetan igual korrika dela, Nafarroa Oineza dela, orduan bai erabiltzen duzu. Eta benga transmititu nahi duzu eta kontatu nahi duzu eta agian ipuin moduan ere ez dakit, gure hizkuntza zer den. Honekin momentuan sentitzen dira, bai. Baina, gero ez dira kapaz hori.. Txikiak dira. Nik uste dut hor lanik handiena helduengan dagoela. Guregan. Bai irakasle eta kanpoan. Inguruan, familian... Konprometitzea, mistoak badira ez dakit haurrari euskaraz dakiena, euskaraz hitz egiteko. Hori garbi, ez dakienak ahaleginak egin ditzala ikasteko. Gaur egun badirudi oso zaila dela baina lehen egiten zuten. Eta garai batean ikastolak sortu zirenean eta, familiak oso oso konprometituak zeuden.

Eta adibidez, orain familia guztietan dago euskaraz dakien norbait, lehen agian ez zela horrela izaten. Eta egoera desberdina zen?

Bai oso desberdina zen. Baina nik uste, lehen beste bizitzeko beste modu bat zegoen, euskaraz bizitzeko beste modu bat. Konprometituago. Erlaxatuago daude eta agian euskara beste maila batean uzten dugu. Lehen ikusten zen zerbait defendatu beharrekoa, “a capa y a espada” ez dakit nola esan. Orduan gurasoak oso oso konprometituak zeuden. Kontzienziatuta horretan: “Ikastola sortu, euskara bultzatu, benga gure seme alabak hor...” bazegoen horrelako giro bat eta hori nolabait ere transmititzen zen haurrengan. Jasotzen zuten eta gaur egun hori ez da existitzen, gaur egun badaukagu, jarrita dago eta aurrera egiten dugu. Eta oso eroso da gu eroso sentitzen garen hizkuntzarekin aurrera egitea. Eta ez gara kuestionatzen “kontxo” ardura handia dugula hemen. Oso ardura handia.

Zuk zure bidean jaso duzu formakuntzaren bat hizkuntzaren sustapenari buruz?

Egia esanda nik zuzenean ez. Nik euskara batzordearen bitartez bai. Baina ikastolan badago. Ikastolan hori egon beharra dago eta esaten dizut, euskara batzordeak formakuntzak jaso ditu eta hori guri transmititu digute. Eta gero ikasturtean zehar antolatzen dituzte kanpainak eta horrela. Argitxo dela, edo hau dela, edo bestea dela... Kanpaina “potenteak” eta beharrezkoak direnak.

Orduan zuk uste duzu euskararen bilakaera okerrera izan dela?

Bai, eta kalitatea eta kantitatea, biak. Hor badago beste eragile bat, eta hau oso pertsonala da, nik bizitakoa. Ez duela ezer ikustekorik beste guztiarekin. Ni oroitzen naiz hasiera batean euskara lantzen genuenean edo ipuinak lantzen genituenean, ba, denbora eskaintzen nion. Eta uste dut euskara gramatikari demagun, esaldiak, hiztegia... eta guzti hori. Gaur egun, ez dago denborarik. Nik uste dut denborarekin ez garela denera iristen. Zeren gara ikastola

nahiko txikia eta bueno ez dakit, nahiko ikastola berritzaile, proiektuetan sartua, konprometitua, proiektu berrietan sartu.. Eta gutxi gara eta nahi dugu abarkatu asko. Hobetze planak, problemen hobetzeko plana... orduan gauza asko dira eta orduan ezin dugu denari heldu. Nik uste hor lehentasunak jarri behar direla eta euskarari lehentasun handia eman behar zaiola. Oinarrizkoa da. Adibidez nik erabili izan ditut, pentazitetea erabili izan dut horretarako.

Orduan pentazitetea erabili izan duzu euskara lantzeko ere?

Bai, bai. Adibidez, pauten artean jartzen genuen euskaraz aritzea. Eta horretarako bagenuen gure sistemaren kontrolaketa eramateko taldeetan jartzen zirenean. Bazegoen behatzaile bat, behatzaile horren lana zen jarrita genituen pauta horiek behatzea eta nolabit ere taldean. Eta bukaeran berak erregistro bat egiten zuen eta gero erregistro hori irakurtzen genuen eta balorazio bat egiten genuen. Auto-ebaluaketa bat baina txikiak zirenez gurekin, irakaslearekin. Denbora bat eskaintzen genion egunero errepasso bat egiteko ea nola joan zitzaigun eguna pauta horietan. Orduan horrek ere laguntzen zuen. Denborarekin zer gertatzen da? Lehen esan dudana, denbora behar da. Denbora joaten da, eta hori horrela da. Eta gero gertatzen dena da presioa dagoela. Presioa daukagu haurrak “honutzaino” iritsi behar direlako eta ikasi behar dute hau, gero kanpo frogak, barne frogak, dena da presioa. Orduan gauza batzuk joan gara agian beste plano batean uzten ez garelako iristen. Eta beharrezkoa da.

Desberdinak ziren lehen erabiltzen zenituen estrategiak eta orain erabiltzen dituzunak, edo azken urteetan erabiltzen zenituenak?

Bai, joan dira aldatzen. Ni oroitzen naiz hasieran egiten zena, etapa mailan, argitxoren inguruan adibidez. Eta argitxo baino lehenago adibidez termometroena. Termometroak jartzen genituen horman eta joaten ginen margotzen kolorez, ondoren hausnarketa egiten zen taldean, ea nola joan den euskararen erabilera. Gora pixka bat, eta gora iritsi. Edo zuhaitza eta hostoekin hornitu. Ba horrelako kanpainak edo estrategiak erabiltzen genituen. Gaur egun horiek ez ditugu erabiltzen.

Eta arrazoia izan daiteke marko pedagogiko berrien ez dutela lekurik?

Bueno hori zen marko pedagogiko berria baino lehen aldatutakoa. Baina, bai marko pedagogikoan bere lekua izan dezake, adibidez errutinetan txertatu daiteke. Nik uste dut beharrezkoa dela. Estrategiak beharrezkoak dira bai ala bai. Motibagarriak izan behar dira. Aldatzen joan behar dira, gero ez dakit, honaino iristen garenean zer? Garrantzia izan behar du. Lehen adibidez, bideoa ikustea. Gaur egun hori adibidez ez, zeren bideoa edozein momentuetan ikusi dezakete eta beste zerbait aurkitu beharko zen. Beste motibazio bat. Baina motibagarria izan behar dela dudarik gabe. Agian, ni oroitzen naiz egitea, taula bat egin beraiekin. Eta azkeneko urte hauetan asko egiten nuena, marko pedagogiko berriaren barruan datozenak, goraiatzea euskaraz entzuten nuenean. Baten bat saritu, “oso ondo,

zorionak, euskaraz ari zara” horrelakoak. Eta orduan horrek bultzatzen du besteak ere hastea. Baina ezin zara horrela egun osoa egon, gastatzen dituzulako energi guztiak. Erabili izan dugu ere euskararen zaintzaile edo argitxoren laguntzailea. Ipin domina edo txarteltxo bat argitxorekin eta bera da argitxoren laguntzailea. Eta orduan bera da erdaraz entzuten duenean esaten diona: “e, euskaraz”. Orduan, beraien artean. Zu sartu gabe. Ardura hori beraien hartuz.

Pentazitadearekin egiten den bezala. Bera arduratzea eta hori adibidez izan daiteke modu bat, ez dakit. Nik bestela egin izan dut, adibidez, ezin duzu bati saritu eta besteari ez, hori ezin da egin eta inoiz ez dugu egin. Baina nik bai egin dudana izan da, objektu desberdinak aurkeztu eta bueno zerrenda bat egin eta entzuten nuenean bakoitzari “makiltxo” bat jarri. Eta gero handik astea bukatzean, ba hemen gehien duena zorionak eta aukeratu hemen lehena hemendik nahi duzuna. Eta aukeratzen zuen berari gehien gustuko zuena. Bigarrena, orain zu... Baina, meritu gehiena zuena bazuen aukeratzeko desberdinak ziren objektuak. Gehien erabiltzen zuenak bazuen aukera lehendabizikoa aukeratzeko. Inor ez zen ezer-ekin gelditzen, baina, hori agian nik asmatuta, baina horrelako gauzak.

Eta gero estra-eskolarrak adibidez gurasoek exijitu dezakete euskaraz izatea. Edo aukera badago aukeratzea euskaraz. Edo neska bat etxean hartu behar dute hainbeste ordu zaintzeko ba euskaraz jakitea. Nik uste familiekin lan handia egin behar dela ere bai. Ez bakarrik ikastola barruan. Barruan bakarrik bost ordu dira eta gainontzekoak kanpoan.

2. EKARRIZKETA: IRAKASLE 2

Kaixo, hasiko gara. Zure ustez geletan umeen artean euskararen egoera nolakoa da?

Bai, niretzat horrek fluktuatu egiten du asko. Ez daiteke esan nolakoa den, zeren nolakoa izan daiteke, aurtan talde batekin edo beste batekin aldatzen joaten da. Eragin handia izaten du baita ere, etortzen diren euskaldunak edo etortzen diren erdaldun hutsak. Denetarik dago, baina nik uste orain momentu honetan nahiko ondo jotzen dela Haur Hezkuntzan. Nik uste “Konfinatzaren Pedagogia” hau lagundu egin dezakeela baina baita ere izan daitekeela beste traba bat. Baina horregatik oso-oso inportantea iruditzen zait irakaslearen presentzia, hau da, irakaslea aktiboa izan behar du. Gauza bat da umeei lanean edo egiten uztea, baina ez daiteke izan behatzaile hutsa. Bidelaguna izan ezker, oso ongi. Lagundu dezake. Eta euskararen erabilera jaitsi dela esaten dugunean pentsatzen jarri behar gara ea noiztik ari garen. Orain dela 30 urte eta oraingoa ez da berdina. Adibidez, nik oritzen dut, 5 urteko neska bat Haur Hezkuntzatik atera zenean, eta entzun nion euskararen antzeko zerbait izan zen, “Bitxo matate aplastatu”. Hori zen bere momentuan, beraz, Altsasun behintzat oso erdalduna izan da. Nik uste handik honutza pauso asko eman dira eta nik uste lortu dela gutxienez geletan euskara egitea. Haur Hezkuntzako geletan ari naiz. Gero Lehen

Hezkuntzan aldatu egiten da, gero DBHn gauza erabat, hormonak direla ez direla, aldaketa handiak ematen dira.

Zuk uste duzu familiek horretan eragina izan dezaketela?

Bai. Nik uste transmisioa, euskararen transmisioa nire ustez zuzena izan behar da. Gurasoak azkenean. Zeren, gu inplikatu gaitzke, egin dezakegu nahi duguna, baina gurasoak atzetik ez badaude. Eta gurasoak egin behar dutena bakarrik jarraitzea da. Ez zaie eskatzen ezer berezia, jarraitzea gutxienez. Guraso euskaldunez ari naiz eta ez erdaldunez. Erdaldun asko euskaraz saiatzen dira eta erakusten dieten euskara traketsa. Eta hori oso garbi izan dugu, hizkuntza, bihotzez hitz egin behar zaie, hau da, gurasoek bihotzez hitz egin behar diete. Eta hasten baldin bada ama kontsolatu nahian bere seme-alaba euskaraz, euskara menperatzen ez duenean, ez du lortzen ez afektiboa, ez hizkuntza. Ez du ezer lortzen.

Orduan ama-hizkuntzak eragin handia du ez?

Bai, horrek ez du esan nahi, ez direnik izaten gai, badira gurasoak erdaldunak izan eta gelako hoberenak izan daitezke. Nik izan ditut haur batzuk, batez ere neskek, guraso erdaldunak eta beraiek euskara maila hoberena gelan. Neskek gehiago komunikatzen dira, gehiago lan egiten dute, gehiago zentratzen dira, ezberdina da. Nik oso garbi daukat ez dela berdina talde bat kopuruaren arabera orekatuagoa izatean edo mutil gehiago daudenean. Nik gogoratzen dut izan nuela talde bat bost neskekin bakarrik. Eta bazegoen bat gurasoak erdaldunak zituenak eta hoberen egiten zuena zen. Baina nesken artean euskaraz egiten zuten, mutilen artean ez. Hori nabaritu egiten da. Hor ere badut nire inpresioa, zeren beti saiatu izan gara euskara gelan lantzen, egoten, erne egoten, zer hizkuntzan ari diren entzuten, baina ez dugu eman pausoa kanpora.

Orduan horretan zentratu behar gara gehiago? Zuk uste duzu gurasoen jarrera aldatu dela?

Gurasoak alde guztietan erlaxatu dira. Ez daukate zer ikusterik lehengo garaiko gurasoekin. Gaur egun gurasoak ikasle ohiak izan direnak baita ere erlaxatu dira asko, erdaraz egiten dute, ez dute transmisio hori egiten. Euskal Herri mailan ere hori gertatzen ari da, zein kopurua dakien eta nork erabiltzen duen.

Zure jarrera nolakoa izan da gaztelaniaz entzuten zenituenean?

Hasiera hasieratik, ikastolara gogoekin sartu ginen baina formazio gutxirekin. Karrerak ematen du ematen duena baina ez du formatzen. Oso zaila da magisteritzan dena abarkatzea. Orduan, guk ematen genion garrantzia euskarari: “euskaraz egin behar dezu, euskaraz egin behar dezu...” eta saiatzen ginen argudio moralak, argudio ezberdinak eta ez. Hori ez. Gainera berehala hasi ginen formatzen ikastolako irakasleak eta pautak jarri zizkiguten. Eta berehala izan zen baina ezin dugu ukatu bolada batean behintzat polizi lana

egiten genuela. Horrelako gauzak. Baina ondoren berehala formatzen hasi ginen. Eta bertan esaten ziguten zein inportantea zen haurraren iristea eta ez "forzatzea".

Nik praktiketan Haur Hezkuntzan euskararen progresioa ikusi izan dut, adibidez 3 urteko gelan ez dutela ezer erabiltzen eta gutxika progresioa ikusten da eta gutxienez irakaslearekin egiten dute. Nola ikusten duzu zuk hori?

Ba hiru urtekoen gelara hasteko, joaten dira haur batzuk oraindik ama hizkuntza ere ez dutela, hau da, kapazak dira ulertzeko baina ez dira kapazak hitz egiteko. Hori oso polita izaten da. Hori da haur hezkuntzako politena. Niri gustatu izan zait lehendabiziko egunetik azken eguna arte talde berdinarekin egotea, eta horrekin disfrutatu egiten duzu. Hartzen duzu hiru urteko haur baten progresioa ikusteko aukera dago. Hasieran ezer adierazteko kapazak ez direnak eta ondoren bai. Hasieran inpotentzia ez dute baina ondoren inpotentzia sentitzen dute, eta joaten dira bi hizkuntzetan pausoak ematen eta hori oso polita da.

Zuk erdaraz entzuten zenituenean, euskarara pasatzeko estrategiak erabiltzen zenituen?

Estrategiak nik uste denak berdinak esango ditugula. Hasiera batean behaketa eta beraiei gerturatu. Aspaldi izan genuen formazio horren inguruan eta esaten ziguten garrantzitsuena zela haurraren iristea. Orduan, pasatzen zarenean galderak egin. Erdaraz entzutean garrantzitsua da ez kulpabilizatzea inor eta zuzenean interbenitu, galderak egin, zertan ari zarete? Ze joko da hau? eta horrelakoak. Orduan, galderen bitartez pasatzen dira zuzenean. Horrek ez du esan nahi joaten zarenean berriro itzuliko ez direnik, baina ez dira gaizki sentituko. Behin bazen TELP euskara formazioa, ikastolan egiten zena. Gogoratu dut Amaia Oiarbide irakaslea ibili zen. Berak behaketa egiten zuen eta oso simple izan zen. Harri batzuk eramaten zituen poltsikoak eta bueltak ematen zituen eta erdaraz egiten bazuten poltsiko batetik bestera pasatzen zituen, baina ezer esan gabe. Eta zorutzen geratu zen zein erabilera maila ona zegoen momentu horretan. Oraindik geunden beste marko pedagogikoarekin baina lortu genuen gelatik jolas parkera pasatzea. Gero jolas parketik, kanpora, ez. Horregatik nik uste dut marko pedagogiko berri honek aukera hori ematen duela zeren dena jarraia da. Familiak inplikatu. Nahiz eta lehen familiak askoz gehiago inplikatu ziren. Prest zeuden edozein gauza egiteko. Askoz gehiago ez dizut esango zeren behar bada orain ere inplikatu egiten dira baina inplikazio maila desberdina da. Ni ikastolara sartu nintzenean, Domingo Lumbierren sartu ginen, eta nik esaten nuen, "jo hemengo gurasoek duten meritoa". Zeren klara aukera dute momentu honetan joateko eta instalazioak ikusteko eta esateko "ostras nola utziko ditut haurrak dena itukinez beteta, dena hezetasunez beteta". Eta gurasoek mantendu egiten zuten auzolanen bitartez. "Kriston" inplikazioa zuten. Eta gurasoak kasu gehiago egiten ziguten orain baino. Orain nolabait ahaldundu egin dira, eta hori ez dago gaizki, ahalduntzea ez dago gaizki, bai haurrak eta bai helduak. Baina bueno segun eta nola, ez bazara kapaza autokritika egiteko eta ikusten baduzu ikasleren bat jolas

parkean erdara hutsean ikusita. Nolatan hori, ez? Esaten diezu eta: “Sí porqué no pasa nada...” esaten dizute. Aizu ez, eske horrela hasten dira eta zuzentzen dira zuri ere erdaraz. Eta esaten dezu, “baina euskaldunak zarete”, “baina zuek komunikatzeko euskara baduzue”. Geroz eta gehiago ematen ari da guraso batzuk euskaraz dakitenak eta haurrarekin bai euskaraz egiten dute baina ondoren, beraien artean, erdaraz komunikatzen direnak. Eta gainera beharbada gehienetan euskaraz zuzentzen zaie baina batzuetan ere erdaraz. Eta beraiek ikusten duten zera da, beraiek erdaraz ari direla eta ni berriz euskaraz egin beharra daukat eta beharbada, momentu horretan, nire euskara eta erdara maila ez da berdina. Eta errazago egin dezaket erdaraz euskaraz baino. Baina niri nolabait esaten didate euskaraz eta gero beraien artean erdaraz. Kontrakoa.

Eta zuk zailtasunak nabaritu izan dituzu ulermenean edo hitz egiterako orduan?

Hasieran hiru urteko gelan bai asko. Beti izaten dira. Eta oraindik bost urteko gelan espresatzerako orduan oraindik ere. Oraindik euskara ez dago bermatuta inon. Eta horrek eragina izan dezake Lehen Hezkuntzan. Adierazterako orduan ez dute behar adinako tresnak izaten. Eta nik oso garbi daukat, ez ikastolak ez D ereduak ez dute bermatzen euskara. Eta ez dute euskara bermatzen ikastolan ordu batzuk bakarrik ematen dituztelako. Eguneko ordu kopuru txiki bat ematen dute gure artean eta gero izaten da, “anchas castilla”, kanpora ateratzen dira eta erdaraz hasten dira. Gurasoekin erdaraz, etxera joaten dira eta erdaraz, eta etxean euskaldunak baldin badira ere gurasoak ez daude formatuta.

Gelako liderraren eragina nabarmena ikusten duzu?

Bai askotan ikusten dira. Liderra baldin bada euskalduna saiatzen da bere taldetxoarekin erdaraz egiten eta igual erdara traketsa oso, baino, egiten du. Orduan hori izaten da beti okerrena.

Eta zuk estrategien beharra ikusten duzu? Irakasleak horretan formatu behar dira?

Bai, irakasleak formatu behar dira eta formatzen dira horretan. Etengabe, nik uste horretan dagoela gakoa. Eta erabiltzen duzun estrategia ume bakoitzari pertsonalizatua izan behar da. Adibidez, ulermen maila baxua dutenean ezin duzu trataera berdina eman. Ezin diozu trataera berdina eman abenduko haur erdaldun bati edo urtarrileko haur euskaldun bati, argi dago. Trataera ezberdina da, baina gertatzen da batzuk hasten dira erdaraz hasiera hasieratik eta kutsatu egiten da eta beste batzuk alderantziz.

Nik gogoratzen dut haur bat bi urtekoen gelan, etorri zela euskaldun peto petoa. Hitz egiten zien denei euskaraz. Bi urtekoen gelan. Hogeita dezente ume genituen gelan momentu horretan. Urtarrila arte egon zen euskaraz egiten denbora guztian. Zergatik? Nik oso-oso argi daukat. Haurra oraindik ez zen gai ulertzeko edo antzemateko besteek ez ziotela ulertzen. Otsailerako egiten zuen erdara txukun-txukuna. Zigortzen zituen bere gurasoak erdaraz egiten. Baina inpresio handia egin zidanez, gogoratzen dut. Baina ez da atzera, garapen pausoa da, bere buruak garapena eman zuen. Hasieran, ez zen konturatzen eta

ondoren, esan zuen ahalegin handia egin behar dut hauekin komunikatzeko. Beraz, hemen dugu lengoai binkularra erdara dela.

Esango dizut heren egun, piszinara joan nintzen eta baziren haur batzuk herrialde desberdinetakoak, eta euskaraz ari ziren. Euskara traketsa oso baina euskaraz ari ziren, ez zegoen ez monitorerik ez ezer. Kanpora atera nintzenean, irakasle bat zegoen. Eta esan nion begira taldetxo hori euskaraz ari zen. Eta esan zidan, bai, eske beraien hizkuntza binkular bakarria euskara da. Zeren bata Argelinoa, bestea ez dakit nongoa... eta azkenean leku ezberdinetakoak izanda komunikatzeko hizkuntza bakarria euskara da. Orduan jende horrekin errazago egin daiteke nahiz eta askotan esan, baditugu etorkin pila bat. Etorkinak latinoamerikarrak badira, ez.

3. ELKARRIZKETA: IRAKASLE 3.

Kaixo, elkarrizketarekin hasiko gara. Zure ustez geletan umeen artean nolakoa izaten da euskararen erabilera?

Ba oso desberdina ama hizkuntza duten edo ez dutenen artean batetik, eta bestetik, eragin zuzena dauka baita ere lidergoa momentu horretan nork darama. Lidergoa daraman pertsona horrek euskaraz egiten badu, euskararako joera gehiago dute inguruan daudenak eta erdarara jotzeko joera adu, erdarara jotzen du taldeak.

Zergatik uste duzu horrela izaten dela, ama hizkuntzaz aparte badira beste eragile batzuk?

Hor azkeneko azterketak nolabait ikusi da edo agerian geratu da pertsona bakoitzarekiko duzun lotura emozionalaren baitan doala baita ere hizkuntzaren erabilera. Normalean tutorearekin lotura emozional hori izaten da estuagoa, orduan, tutorearengana normalean beti euskaraz zuzentzen dira eta lotura hori estuagoa delako. Irakasleengana normalean ere beti euskaraz egiten dugulako, baina, bueno hor kezka bada, handia eta ez bakarrik gure ikastolan baizik eta ikastola guztietan. Eta horren inguruan egin diren azkeneko azterketetan hori gelditu da agerian, ez, alderdi emozional hori. Hizkuntzarekiko dagoen alderdi emozional hori.

Uste duzu eragina izan dezakeela helduen harremana?

Zalantzarik gabe. Gu gara eredu azkenean eta beraiek errepikatzen dute ikusten dutena. Etxean gurasoen artean euskaraz ari badira, beraien artean euskaraz aritzeko ohitura hartuko dute eta ohitura horiek, nahiz eta *Rongyaten* legeak esaten duen bezala hizkuntza bat pertsona bat izaten den, ba beraiek ere ohitura hori, euskaraz hitz egiteko ohitura hori badute errazagoa da beste eremu batzuetara ere zabaltzea. Hezkuntza formaletik, hezkuntza formalera, etxetik ikastolara, ikastolatik kalera...

Eta horretaz aparte uste duzu gutxitze hori izan daitekeela marko pedagogiko berriaren ondorioetako bat?

Ez dakit zuzenean marko pedagogikoaren eraginez den edo baita ere gizartean ematen ari den aldaketarena. Ez da bakarrik guk aldatu dugula irakasteko edo ikasteko prozesu hori nola antolatu, baizik eta gizarte mailan eman den aldaketa, eta hizkuntzaren erabileran zuzenean nabaritu da jaitsiera.

Uste duzu gurasoak euskararekiko zuten konpromezua aldatu dela?

Bai. Nolabait ere eman da euskararen akademizazio prozesu bat. Lotzen da euskara irakaste eta ikaste prozesuarekin eta ez dugu benetan aldarrikatzen garai batean ikastoletatik, sorreretatik aldarrikatzen zutena. Euskaraz bizi nahi dugula, ez dela bakarrik gure hizkuntz bat altxor baten moduan gorde behar dena baizik eta gozatu behar dugula hizkuntza.

Eta haurrak erderaz hitz egiten ikusten dituzunean zein izaten da zure jarrera?

Egoera eta momentuaren arabera oso desberdina. Jakin badakigu, lehen esan dizudan bezala. Alderdi emozionalak paper garrantzitsua duela prozesu guzti horretan erabileran bereziki. Baina badira momentuak gainezka zaudela eta esaten duzula: "Benga euskaraz!" Poliziarena ba, poliziarena. Nahikoa da. Batzuetan hartzen dira normalean gomendatzen ez ditugun jarrerak. Baina azkenean ateratzen zaizu, azkenean guk ere badugulako hizkuntza horrekiko lotura emozional handi bat eta amorrua ematen dizulako erdaraz entzutea. Onartu behar da horrelakoak ere batzuetan egiten ditugula. Normalean saiatzen gara euskararen sustapenerako nolabaiteko ekintza puntualak edo jarduerak, baditugu proiektuak ere, "hizprok" ere Hizkuntza Proiektuak ere jasotzen du, argitxoren kanpainak badauzkagu Haur Hezkuntzan, gure gelan adibidez argitxok astean behin uzten du opari bat euskara gehien erabili duenari edo ahalegin berezia egin duenari. Uzten du edo ez. Adibidez orain bi aste darama oparirik utzi gabe. Gaur bik jasoko dute, baina bueno, horrekin ere jolasten duzu. Nolabaiteko motibazioarekin. Beraiek badakite bosgarren egunean argitxok opari bat utzi dezakeela. Eta nabaritzen da puntu batean beraiek konsziente direla eta motibagarriak diren estrategiak sortu behar dira. Zailena izaten da beraien artean euskaraz aritzekoak, zeren ulermen maila badute, guztiek ulertzen dute ez dago arazorik, guregana, helduengana, irakasleengana, euskaraz zuzentzen dira. Agian hiru urtetan ez horrenbeste, oraindik ez direlako gai. Ama hizkuntza erdara badute edo beste hizkuntza bat baina bai 4-5 urtetan beti guregana zuzentzen dira euskaraz. Eta nabaritzen zaie bereganatze prozesu horretan aurrerapen bat. Baina beraien artean oso zaila da erdarara jotzeko ohitura dagoelako eta ez gainera ezagutza ezagatik familien artean, zeren nire gelan adibidez aurten oso familia gutxi edo ez dago ezta bat biak erdaldunak direnak. Beti dago mistoak, igual euskara eta erdara edo biak euskaldunak. Hau da, euskararen presentzia nolabait ziurtatuta dago etxe guztietan edo egon beharko litzateke. Baina gero errealitatea ez da hori orduan, esaten duzu, kontzientziazio hori ez dakit zein puntutaraino ez ote den galdu bidean.

Nesken artean mutilen artean baino gehiago hitz egiten dela uste duzu?

Bai normalean bai. Nire gelan otsaila arte edo, horrela izan da baina orain neskak ere hasi dira erdaraz hitz egiten. Eta bueno bost urtekoen gelan, bost urtetan hasten da morala garatzen edo lehenengo nerabezaro hori izaten da. Arauen kontra jotzeko jarrera hori baita ere. Zuk esaten duzu baietz ba nik esaten dut ezetz eta ea noraino iristen garen. Orduan psikologikoki ere ematen dira beste prozesu batzuk. Eta hor argixoren horrekin, begira gaur gertatu zait oso gauza polita, gurasoen taldera bidali behar dudana. Opariak edo errekonpentsa jasotze hori niri ez zait gustatzen normalean gauza materialekin lotzen, nahiz eta orain adibidez pilotatxo batzuk uzten ditut, horretan bukatu dut oraingoan. Zeren ikasturtea luzea da eta aldatu behar dira gauzak. Lehenengo oparia izan zen babarrun aleak. 3-4 babarrun ale eta argixoren ohar bat esanez babarrun magikoak zirela eta ura eta lurra behar izateaz gain euskara behar zutela handitzeko. Eta gaur ekarri dit Olaiak bere lanadarea. (Argazkia) Eta hori, polita izan da, gainera landare ederra. Horrela aukera izan dugu gelan ikusteko: gogoratzen duzue nola argixok babarrun aleak ekarri zituen? Pentsa zenbat euskara hitz egin duen Olaiak. Eta gero Olaia euskalduna da eta normalean euskaraz nahiko egiten du. Beraiek ikusteko eta familien "whatsapp"-era bidaliko dut azalpenarekin aber familien artean ere kontzientziatzen hori.

Agian familiak ere hausnarketa horretan sartu behar dira, ez?

Bai opari horren helburua hori zen. Familia bustitzea horretan ere. Estrategiak familietan eta ikastolan zentratuta egon beharko liriateke.

Zailtasunak nabaritzen dituzu ulermenean?

Ez ulermen mailan ez. Gehiago nabaritzen da ahozketasunean. Ulertzen dute, ulermen maila eskuratzen dute errazago ahozketasuna gabe. Jario hori praktikatu behar dute ikasleak orduan hemen egiten badute bakarrik euskaraz, etxean edo kalean ez badute egiten, ez da gauza bera etxean euskaraz aritzen den ikasle bat edo ez. Nabaritzen da.

Zuk irakasleen estrategien beharra ikusten duzu?

Bai, bai zeren ahozketasuna adibidez orain aipatu duguna. Ahozketasuna landu egin behar da gelan. Eta ez da bakarrik goazen hitz egitera, goazen hitz egitera da beraiei hitza ematea, zu beraiei galderak modu egokian egitea beraiek hitz egin ahal izateko. Erantzuna ez dadila bai edo ez izan. Eta zergati? esan didate ez dakit zer egin zenuela, nola egin zenen? Pixka bat erantzunak luzatzeko aitzakia eman dezaketen galderak.

Zuk formakuntzaren bat jaso duzu euskararen sustapenerako?

Bai egin ditugu ahozketasuna lantzeko bereziki egin genuen formazio bat. Gainera euskaraz bizi taldetik sustatua. Bere garaian euskaraz bizi zenean. Urteak pasa dira. Orain badira urteak "Hizpro" hizkuntza proiektuaren baitan sartzen dela eta hori da arlo bat gehiago ahozketasunean. Baina bai hartzen dira, ez bakarrik euskara, baizik eta erdara eta ingelesa. eta horien ikaskuntza prozesua eta erabilera eta sustapenerako estrategia desberdinak daude. Baina bere garaian bazen euskaraz bizi proiektua eta horren barruan adibidez egin

zen eta niretzat izan zen nahiko proiektu potoloa, sendoa. Eta orduan izan zen DBHtik hasi, normalean proiektu hauek eta Argitxoerena, eta guzti horiek HHTik hasi dira eta gero igotzen joan dira, baina garai hartan egin zen guztiz kontrakoa DBHn hasi eta ur jauzia HH bitartean. Zeren hor baita ere hizkuntzan nabaritzen del erabilera agian HH eta LH lehenengo zikloan handiagoa dela eta gero jaisten da eta DBHn bereziki dauden fase psikologikoetan ere. Eta nerabezaroan dena da ez eta kontra eta zuk esaten badidazu horrela dela nik esango dizut justu kontrakoa eta ez dut egingo. Orduan hori izan zen proiektua justu alderantziz, DBHtik behera. Eta egia da bueno garai horretan ahozkotasanaren inguruan oso gauza gutxi zegoen eta niretzat izan zen oso gauza lagungarria.

Ikastolan badago euskara sustatzeko proiektuaren bat?

Bai, lehen esan dizudan "Hizpro" proiektua eta Erkuden Floresek horren informazio zehatzagoa emango dizu.

4. ELKARRIZKETA: IRAKASLE 4.

Zuen inguru soziolinguistikoa kontuan hartuz, euskararen bilakaera nolakoa izan da marko pedagogiko berri honen barruan?

Geroz eta gehiago entzuten da gaztelania gure inguruan. Garai batean ikastolan ez ziren familiak orain bezala ikastolara sartzen eta horrek ekarri duena izan da umeei irakaslea eta familiaren arteko harremanak ikusten dituztela eta hauek batzuetan gaztelaniaz izaten dira. Adibidez, badira ikastola batzuk, non ez duten familia sartzen uzten, esate baterako, Jaso ikastolan hori egiten dute.

Baina arrazoia gizartean gertatu diren aldaketak dira, horrek ere euskararen bilakaeran utzi du bere aztarna.

Zirkulazio librearekin pasatu gara irakasleak denbora guztian klaseak gidatuzetik, haurrak erabakitzen nondik mugitu, beraz, irakasleak hemen bere esku hartzeak egin beharko ditu baina zeharka. Hau da, irakaslea zentroa izatetik, haurra izatera pasatu da Konfiantzaren Pedagogiarekin, bidelaguna.

Lidergoak ere eragin handia dauka hemen gure ikastolan taldea hautsi behar dugunean, HHTik, LHra pasatzen direnean adibidez, lider linguistikoa kontuan hartzen dugu. Euskalduna edo erdaldun hutsa izateak eragin handia izan dezakeelako gelako euskararen erabileran.

Laburbilduz, Konfiantzaren Pedagogia ona da baina euskararen erabilpenarekin oso kezkatuta gaude, agian hutsuneak izan ditzakeelako horren trataeran eta lana egin behar da euskara areagotzeko bidean.

Gizartearen bilakaeraren eragina izan daiteke horren ondorioz garrantzitsuena, azkenean haurrak gizartearen isla dira eta.

Honekin bi puntu garrantzitsu aterako genituzke: alde batetik, ateak zabaldu dira eta erdara sartu da ikastolan eta beste alde batetik, denboraren banaketan esan dudana bezala, lehen

irakasleen feedbacka momenturo zegoen eta horregatik da garrantzitsua interakzioa. Baina hau guztia Haur Hezkuntzan, nerabeen artean zailagoa izango litzateke.

Nola sortu daiteke zerbait Konfiantzaren Pedagogiaren barruan euskararen erabilera sustatzeko? Badago zerbait pentsatua ahozkotasuna bereziki lantzeko?

Esan dudan bezala, denborak garrantzi handia dauka eta nekez lortu daiteke lehen lortzen zena eta orain beste mota bateko esku hartzeak bilatzen saiatu behar gara.

Kontuan hartu behar da hurrek ez dutela hautu kontzienterik egiten eta lehentasunak kontuan hartu behar dira Haur Hezkuntzan batez ere.

Adibidez, 4 urteko ume batek erdaraz egiten du normalean hizteirik ez duelako eta ez dugu pentsatu behar erdaraz egiten duela gure kontra joan nahi duelako.

Horregatik, lehentasunak kontuan hartu behar dira haurrak euskararekin atxikimendua sortzeko. Hau da, maila baxuetan hori aldatu eta harreman positibo hori sortu. Batez ere, haurrak imitazioaren bidez ikasten dute eta imitazio patrioiak egokiak izan behar dira beraientzat.

Baina Konfiantzaren Pedagogian zerbait sortu baino, irakasleen estrategiak erabili behar dira. Batzuetan gaztelaniaren presentzia handia da eta maila baxuetan lan egin behar da DBHra “matxakatuta” ez iristeko.

Orduan, irakasleak estrategiak erabili behar ditu hori ez gertatzeko, adibidez, elkarrizketetan sartzea, arauak jartzea, Haur Hezkuntzan mezu sinbolikoak bota, motibazioa mobilizatzea... umeen atentzioa bereganatu behar da, haurrak kaptatu behar dira jakin-mina sortzeko.

Nola egingo genioke aurre egoerari haurrak euskaraz hitz egiten ez badu bere nahia kontuan hartuz? Hau da, nola sortu dezakegu euskararekiko konfiantza?

Batez ere enpatiaren bidez saiatu behar gara. Haurren lekuan jarri behar gara. Adibidez, hasieran egunerokotasuneko hiztegia irakatsiz edo eskainiz. Horrek haurra motibatu egingo du. Errepikapenen bidez ereduak eskaini behar dira bakoitzaren beharrak errespetatuz. Baina beti ere aldaketa ez dela bereHalakoa izango jakin behar dugu. Euskaraz ez dakien haur batek hasiera batean “Quiero agua” esaten badu, zuk “Ura nahi dut” esango diozu. Agian hurrengo egunean berriro gazteleraz esango dizu baina kurtso amaieran seguruenik hiztegi hori bereganatzen joango dela.

Irakasleak hainbat estrategia erabiltzen baditu, konfiantzaren pedagogiaren aurka joango litzateke? (Agian haurraren sena ez delako errespetatzen)

Argi eta garbi, irakasleak estrategiak erabili behar ditu, bai. Baina irakaslea bidelaguna izan behar da, haurra motibatu eta DBHra iristen denean haurrak euskara ez gorrotatzeko estrategiak erabili beharko ditu. Hau da, bizipen positiboak eta harreman positiboak luzatu behar dizkio haurrari.

Esate baterako, lehen erabiltzen genituen zenbait estrategia, Argixoren Kanpainak bezala, zaharkituta geratu dira. Geroz eta kanpotar gehiago matrikulatzen dira ikastolan eta beraiantzat hori testuingurutik kanpo egongo litzateke.

Espazio berrien sorrera euskararen erabilerarako egokia izango litzateke?

Ez. Ez dira euskara bereziki lantzeko eremuak sortu behar. Euskararen eremua ikastola osoa da, barruko espazioa, kanpoko, jolasak... dena da euskararen txokoa, orduan ez du zentzurik horretarako bakarrik eremu bat sortzea.

Baina mikroespazioetan batzuetan arauak jarri daitezke, adibidez, gure kasuan badugu mikroespazio bakoitzean nortasuna lantzeko materiala. Hizkuntza txokoetan adibidez, hizkuntza lantzen da baina ez bereziki euskara baizik eta hizkuntza guztiak.

Arizmendi ikastolak sortutako “Konfiantzaren Pedagogia” liburuan lider linguistikoak identifikatu behar direla azaltzen da. Zer gertatzen da adibidez HHko gela batean gehienek erdaraz egiten badute eta lider linguistiko hori erdalduna denean?

Gure kasuan ikastolaren eraikin bat baino gehiago dugu, eta horietako batean haur gehienak erdaldunak dira. Haur horiek euskaraz egiteko egiten duten esfortzua izugarrikoa da eta horregatik esan dudana, enpatia oso garrantzitsua da.

Baina gurasoekin ere lan egiten dugu, euskararekin seduzitzen saiatzen gara eta adibidez, bilerak gehienetan elebidunak edo pinganilloak baditugu euskaraz izaten dira, inoiz ez erdara hutsean.

Prozesu honetan familiak kontuan hartzea ezinbestekoa da, beraien zenbait jarduerak planteatzea egokia izango litzateke? Zein motatakoak?

Badira guraso batzuk, normalean euskaldunak izan dira, kezkatuak etorri direla egoera horri buruz. Lanean hasi dira eta jolasak eta horrelakoak antolatzen dituzte.

Eta gure aldetik, 19/20 kurtsorako sentsibilizazio saioak egingo ditugu horretarako. Baina guztiok kontuan hartu behar duguna da, 4 urteko haur batek erdaraz egiten badu kontuan hartu behar da ez dela gu “joditzeko”.

Zuen ustez, arazo honi aurre egiteko ikastola bakoitzak bere plana sortu beharko luke, edo orokor bat beharko litzateke arazoak eremu handi bat hartzen duelako bere barne?

Nire ustez, bakoitzak berea egin beharko luke. Baina izan daitezke marko orokorra, adibidez, guk egiten duguna, euskara lehenesteara: bilerak euskaraz egitea. Eta noski familiekin landu behar da, ikastolak euskalduntze prozesuan betebeharrak batzuk dituela azaldu behar zaie.

Garrantzitsua da jakitea Haur Hezkuntzan ez dutela hautu konzienterik egiten, baina gizarteak hori egiteko gaitasuna badu.

C. IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO ESPAZIO EZBERDINAK

GELA HORIA: 3 urtekoen gela da. Haurrak ikastolara sartzen direnean, hemen egiten dituzte hasierako errutinak eta esan daiteke, hau dela beraien ohiko gela.

Gela horiko espazioan artearekin zerikusia duten materialak daude. Txoko ezberdinetan banatua dago: Gelan sartu eta margotzeko txokoa dago, manley, plastidekor edo errotulagailuak dituzte marrazkiak egiteko. Parean, plastilina txokoa dago, hemen material ezberdinak dituzte plastilina lantzeko eta noizean behin material manipulatio hauek aldatu egiten dira. Eskumuturrekoak eta lepokoak egiteko txokoa ere badago, hemen hurrek plastikozko eta egurrezko piezak dituzte harietan sartzeko.

Horrez gain, jolas sinbolikoko txokoa badago, “sukaldetxo” bat dago eta bertan haurrak jolas sinbolikoan ibiltzen dira. Gainera, duela gutxi ireki duten txoko bat dago, tenpera txokoa. Bertan haurrak kartulina ezberdinak dituzte eta tenperarekin marrazkiak egiteko aukera dute.

GELA LARANJA: 4 urtekoen ohiko gela da. Gela hau matematika eta hizkuntzarekin zerikusia duen gela da. Alde batean ipuinen txokoa dugu, hemen haurrak ipuinekin jolastu daitezke ukitu, ikusi eta irakurri ditzakete. Ondoan, matematikako txokoa dago. Hemen fitxa ezberdinak dituzte betetzeko, zenbakiak, labirintoak, mandalak... dituzte. Era berean, material manipulatio ezberdinak dituzte haiekin jolasteko.

Ondoan, jolas sinboliko txokoa dugu, beste “sukaldetxo” bat dago, baina hemengo materialak 3 urteko gelakoen desberdinak dira.

Amaitzeko, hizkuntza txokoa dute eta hemen idazteko aukera ematen zaie hurrei. Materialak aldatzen joaten dira, liburuxkak egin ditzakete, letra forma duten zigiluak dituzte, arkatzak, borragomak... eta horrelako materialak daude.

Baita ere, duela gutxi gela honetaz arduratzen den irakasleak baskula bat jarri zuen haurrak pisatzeko eta beraien pisua koaderno batean idazteko.

GELA BERDEA: 5 urtekoen ohiko gela da. Gela honi eraikuntzen gela esaten diote. Hemen eraikuntzarekin zerikusia duten hainbat material daude: Legoak, egurrezko piezak, plastikozko animali ezberdinak... Horrez gain, egin eta desegin txokoa dago, hemen haurrak iltzeak sartzeko eta ateratzeko aukera dute, mailuak, bihurkinak, iltzeak, torlojuak... eta antzeko materialak dituzte. Puzzleen txokoa ere gela honetan badago, puzzle ezberdinak dituzte, adin guztietarako.

Esan beharra dago, ipuinen txokoa ere badagoela, ipuin desberdinak dituzte, kuxinekin eta alfonbrekin, goxo eseri eta irakurtzeko.

ADIERAZPEN GUNEA: Gune honi mozorroen gunea esaten diote. Hemen mozorro ezberdinak daude hurrek jartzeko eta jolasteko. Gune hau hiru gelak konektatzen dituen pasabide zabalean dago. ,.

KANPO ESPAZIOA: Kanpo espazioan gune diferenteak daude. Alde batetik, egurrezko pasabide bat dago, eta bertan, hiru mahai. Lehendabizikoan, harriak dituzte, harriekin

eraikuntzak egin ahal izateko. Bigarrenean, egurrak daude eta normalean plastikozko dinosauro eta animaliak daude horiekin jolasteko. Eta azkenik, hirugarrenean, harea dago. Hasieran harea normala zegoen baina gero harea kinetikoa jarri zuten.

Beste alde batetik, harea-tokia dago. Harea-tokian, parke txiki bat dago eta bertan hurrek igo eta jolasten dute, hemen ere, material ezberdinak daude, (kuboak, palak, ontziak...) harearekin jolastu ahal izateko.

Putzu txiki bat dago bi arrainekin. Arrainen zaintzaz haurrak arduratzen dira eta kanpo espazio garaian hurrek jatekoa ematen diete. Udaberri garaian baratza txiki bat jartzen dute. Hainbat gurasoren laguntzarekin bertan barazkiak landatzen dituzte eta hurrek aukera dute ureztatze eta fruituak jasotzeko.

Eguraldi txarra egiten duenerako aterpe txiki bat dute, frontoi baten modukoa da eta "kantxa" izateaz gain, eskalatzeko gune txiki bat dago. Baita ere, egurrezko hainbat material dituzte, (pilatutako paleak, gurpilak, egurrezko listoiak...) horiekin eraikuntzak egiteko aukera izanik.

SALTO GELA: Gela hau psikomotrizitate gela da. Normalean zirkulazio librean ibiltzen direnean ez dute erabiltzen. Ordu desberdinak dituzte eta bertara talde bakoitza bere irakaslearekin joaten da saioa jasotzera.

Psikomotrizitate saioetarako, irakasleak Aucouturier-en praktikak eramaten dituzte aurrera.

D. IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO ERRUTINAK

Haurrak gelara sartzen direnean, goizeko 9:00tan, bakoitzak bere izena "etxeke txokotik" hartzen du eta "ikastolako txokora" eramaten du. Bertan hiru aurpegi edo sentimendu daude emotikono batekin irudikaturik (pozik, triste edo haserre).

Hau egin eta gero, gelakide guztiak iritsi arte txokoetan jolasten ibiltzen dira (normalean bakoitza bere ohiko gelan).

Behin gelakide guztiak etorri direnean, borobilean edo asanbladan biltzen dira eta gelako arduraduna nor izango den aukeratzen dute. Zerrendaz egiten dute eta irakaslearen laguntzarekin arbelean izena idazten dute.

Arduradun hau sintonian, behatzailea da eta aulki batean esertzen da beste guztiak sintonia nola egiten duten behatzera. Azkenean ongi egin badute banan-bana zoriontzen ditu.

Sintonia egiteko, haurrak indioak bezala esertzen dira lurrian, eskuak belaunetan jarrita eta begiak itxita dituztela burua mugitzen dute, musika lasaia entzuten duten bitartean.

Sintonia eta zoriondu eta gero, asteko zein egun den begiratzen dute. Horretarako sinboloak dituzte (Astelehena: Klin-klan eguna; Asteartea: Pintxo-pintxo eguna; Asteazkena: Astotxo eguna; Osteguna: Txalo-txalo eguna; Ostirala: Tilin-talan eguna)

Horrela hurrek hobeto identifikatzen dituzte asteko egunak, eta gutxika-gutxika izen horiek aldatzen joaten dira ohiko izenak ikasi arte.

Ondoren, eguraldia zein den begirutzen dute, hau egin eta gero, hilabetea eta eguna begirutzen dute eta errotulagailu batekin eguna ezabatzen dute.

Gero, haurrak zein guneetara joango diren erabakitzen dute eta ozenean esaten dute, nahiz eta askotan ez diren esan duten txokora joaten. Hasieran aipatu dudan bezala, Konfiantzaren Pedagogian oinarritzen direnez zirkulazio librean ibiltzen dira, gune eta gela ezberdinetara abiatuz.

9:30tan ateak irekitzen dituzte eta haurrak geletatik libreki alde batetik bestera mugitzen dira. 11:30ak iristen diren arte. Garai horretan, txokoak jaso eta ohiko geletan elkartzen dira, bakoitza bere irakaslearekin. Irakasleak fruta prestatu eta jan egiten dute. Aste bakoitzean frutaren arduradun bat dago, hau da, aste bakoitzean haur bat arduratzen da egunero fruta ekartzeaz.

Bukatzen dutenean, berokiak janztera joaten dira eta kanpo espaziora ateratzen dira, kanpo espazioan ere mugimendu librean ibiltzen dira.

Azkenean, etxera joan baino pixka bat lehenago, gelara sartzen dira eta berokia kendu gabe ipuin labur bat kontatzen du irakasleak, (normalean Urtxintxa proiektuko ipuinak izaten dira) eta etxera edo jantokira joaten dira bazkaltzera.

Arratsaldetan, gelara sartu eta sintonia egiten dute. Ondoren, bakoitza egon behar den gunea aukeratu eta ateak irekitzen dira. Orduan, berriro zirkulazio librean ibiltzen dira 4ak arte. Ordu horretan dena jaso eta irakasleak edo nik ipuina kontatu eta gero, 4.30tan etxera joaten dira.

Errutina hau astelehen, astearte eta ostegunetan egiten dute, asteazken eta ostiraletan aldiz, goizean bakarrik egoten dira ikastolan. Hala eta guztiz ere, goizean aste osoan zehar erritmoa berdina da, psikomotrizitate gelara joaten direnean edo ingelesa saioa dutenean kenduta.